

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a / 478. zenbakia



2001 urteari
errepasoa





Ibargarai 36-38 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



Zure sukaldea.



KALEINKESTA/ Urtia bukatzera doa. Urte berrixari ze eskatuko zontsake?



MARIA EUGENIA MARTÍNEZ
40 urte

Munduko gerra danak bukatzia: Afganistanekua, Afrikakua... baita gureta-ko pakia be, badakit utopiku-ku dala, baiña... Mailla pertsonalian, berriz, lana eta osasuna eukitzia.



ANTONIO MERCHÁN
59 urte

Danendako lana egotia, gaztiendako, batez be, gu ja nagusixak gara-eta. Beste- tik, pakia egotia, bai hemen eta bai mundu darian. Bi gauza horreikin konfor- mauko nitzake.



ANTONINO ARIZKORRALDE
75 urte

Beste urte berri bat etorri dadilla, gutxienez. Osasuna da inportantiena. Mundu honetan ze eskatu bihar dogu, ba, gehixago? Horre- kin eta diru pixka batekin, konforme.




ELENA GARITANO
84 urte

Dirua da inportantiena. Ze eskatuko jat nik, ba, urte berrixari? Diruañ gain, ba, osasuna eukittia eta ia pakia ekartzen doskun urte berrixak, horrek be falta gitten dosku-eta.



MARIA MARTÍN
67 urte

Osasuna da inportantiena neretako, horixe eskatuko notsake urte berrixari. Eta danondako lana egotia be bai. Pakia be ondo biha- rrezkua daukagu, hemen, batez be.



JOSE LUIS KAREAGA
58 urte


Osasuna eukitzia da nere- tako printzipalena, eta, hor- taz, horixe eskatuko notsa- ke urte berrixari. Horretaz aparte, danondako pakia be bai, bai etxian baita kalia be.

ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA	/3
URTEA DATUTAN	/4-5
ONENA ETA TXARRENA	/6-7
DATORRENA DATORRELA	/44-45
IRUDIAK	/46

URTEARI ERREPASOA

Urtarrila	/8
Otsaila	/12
Martxoa	/14
Apirila	/16
Maiatza	/20
Ekaina	/22
Uztaila	/28
Abuztua	/30
Iraila	/32
Urria	/36
Azaroa	/38
Abendua	/42



UDALAREN JARDUNA/ Nola baloratzen duzu aurtengo Udalaren jarduna?



VICTORIANO GALLASTEGI / Alkatea

Balorazio positiboa

Martxoan onartu ziren 2001eko aurrekon- tuak, EAJ-EA eta PSE-EE alderdien botoekin eta Batasunaren oposizioarekin. Aurrekontua ezinbesteko tresna da Bergarak eskatzen diguna gestionatzeko eta betetzeko.

Urte honetan lorpen garrantzi- tsuak izan dira Bergararen garape- nerako eta toki askorik ez daukade- nez, labur-labur hauek aipatuko ditut: Jaurlaritzare- kin hitzarmena, Eskola Profesionala Mayc parera eramateko eta babestutako 35 etxebizitza egitekoa; Altos Hornoseko industrialdea osotasunean garatu da eta lurzoru industrial berriak ireki dira San Juanen eta Murinondon; Agorrosingo kirol ekipamenduen behin betiko proiektua; Jardun elkarteari eta Gazte Asanblada- ri behin betiko irtenbidea, eta Zabalotegiko aretoaren birmol- daketa eta egokipena; herri

“Ekitaldiaren balorazioa oso positiboa da. Baina politikoki asko dago hobetzeko; elkarrizketa falta da”

osoan zuntz optikoa jartzeko proiektuaren onarpena; Arrizuriaga jauregiaren erosketa udal ekipamendurako; eskualdeko garraioen logistika eta lurzoru industrial gehiago Ipiñarri gunean; azpiegitura

gehiago Bergara ondo komunikatuta egoteko, eta beste hainbat jarduerara, toki faltagatik aipatu ezin dituda- nak. Beraz, ekital- diaren balorazioa, nire iritziz, oso positiboa da.

Politika aldetik asko dago hobetzeko; elkarrizketa falta da. Ezin dugu biolentzia maila honekin jarraitu. Herrialde honek duen gaitasun mailarekin ezin du horrela bizi. Elkarrizketa behar da, guztion aldetik: gobernuak, alderdi politikoak... Herritarrei mezu hau eman nahi dizuet: ez jauzi proboka- zioetan, lasaitasuna, egunero helburu bakarrarekin jardun lanean; hau da, elkarrizketaren bidez biolentzia errotik kentzea lortu behar da.



JESUS MARI GARITANO / Batasunako zinegotzia

Balorazio negatiboa

Bukatzen den urte honen balorazioa ezin da positiboa izan. Iaz bezala, Udalaren kudeaketa 8 zinegotziren eskuetan dago (17 izanda), horri Udal Gobernuak lanerako duen estiloa gehituz gero, non alkatearen izaera presidentzia- lista eta gardenta- sun falta agerian gelditzen den, emaitzak bistakoak dira. Akatsak ugari, gaiak sakondu barik, eztabaidatu eta kontrastatu barik, eta herrita- rren iritzia jaso barik aurrera ateratzen dira.

GoitB eta Gaztetxea/Jar- dun dira gestio horren bi adibide garbiak. Bata ezkutuan eraman ondoren azkenengo bi urteetan, bat-batean eta inorekin kontatu gabe irtenbi- de bat topatu zaiola dirudi. Bestea, berriz, usteltzen laga, bakarrik gauzak guztiz oker- tzen direnean arazoari heldu.

Bestalde, argi geratzen da EAJ-EAren ezintasuna abertza-

leen arteko harremana bultza- tzeko, eta horren adibide gar- bia aurtengo aurrekontuak onartzerakoan gertatutakoa izan daiteke, ez zuten inongo aukerarik eman denen artean lantzeko, eta azkenean inongo arazorik gabe PSOE- rekin adostu eta Udalbiltzarako partida kendu zuten, plenoan bertan.

Agorrosingo kirolgunearen aurreproiektuan ez genuen aukerarik izan parte hartzeko, ezta ere hainbat erabiltzailek. Hau

nahikoa ez bada, hasierako aurrekontua ia bikoiztu egin da. Beste gai batzuen artean, Auditoriumarendako, urtea alferrik pasa da, eta hainbat udal zerbitzu pribatizazio politikak aurrera jarraitzen du. Ur zerbitzua, esaterako.

Gure udalean bizi den egoera beste hainbat instituzio- tan errepikatzen da; garaia da indarrak metatzeko, Bergarako arazoei aurre egin eta Euskal Herria eraikitzen hasteko.

“Urteko balorazioa ezin da positiboa izan. Iaz bezala, Udalaren gestioa 8 zinegotziren eskuetan dago (17 izanda)”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Oxel Erostarbe
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elokoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala




Elgetako
Udala

URTEA DATUTAN

Hainbat albiste izan ditugu aurtengoan: batzuk mamitsuak, potoloak; herritarrondako, behintzat, garrantzitsuak izan diren albiste txikiak ere bai, eta baita herriko hainbat

txutxumutxu ere. Guk, albiste izan ez diren, baina herriari buruzko bestelako informazioa ematen diguten beste hainbat datu ere bildu nahi izan ditugu hemen.




LIBURU salduenak

- EUSKARAZ**
1. **Harry Potter eta sorgin harria**
J.K. Rowling
 2. **Naturaren mintzoa**
Pello Zabala
 3. **Sisifo maite minez**
Laura Mintegi
 4. **Gorde nazazu lurpean**
R. Saizarbitoria

- GAZTELERAZ**
1. **EL SEÑOR DE LA GUERRA**
Toti Martínez de Lezea
 2. **La caverna**
José Saramago
 3. **Un rey golpe a golpe**
Patricia Sverlo
 4. **Cuidate, compa**
Eneko Landaburu

EGUNKARI salduenak

1. EL DIARIO VASCO
2. Gara
3. Deia
4. Marca
5. El Mundo



DISKO salduenak

- EUSKARAZ**
1. **Espilue**
Mikel Urdangarin
 2. **Jo ta ke**
Su ta Gar
 3. **Maren**
Kepa Junkera
 4. **Etorkizuna**
Hemendik at

- GAZTELERAZ**
1. **EL VIAJE DE COPPEPORT**
La oreja de Van Gogh
 2. **Estopa**
Estopa
 3. **One**
The Beatles
 4. **Próxima estación... esperanza**
Manu Chao

ALDIZKARI salduenak

1. HOLA
2. Semana
3. Pronto
4. Lecturas
5. El Mueble



FILME ikusienak

1. **CHOCOLAT**
Lasse Hallström
2. **Los otros**
Alejandro Amenabar
3. **Náufrago**
Robert Zemeckis
4. **Torrente II**
Santiago Segura
5. **Scary Movie**
Keenen Ivory Wayans
6. **Mouline Rouge**
Baz Luhrmann
7. **Los padres de ella**
Jay Roach
8. **Lo que la verdad esconde**
Robert Zemeckis
9. **Otoño en New York**
Joan Chen
10. **Límite vertical**
Martin Campbell

Egunik BEROENA

2001eko ekainaren 25a

38 °C



BIDEO hartuenak

1. **GLADIATOR**
Ridley Scott
2. **El Bola**
Acheró Mañas
3. **American Beauty**
Sam Mendes
4. **Traffic**
Steven Soderbergh
5. **Snatch, cerdos y diamantes**
Guy Ritchie
6. **El bar Coyote**
David McNally
7. **60 segundos**
Dominic Sena
8. **Cero en conducta**
Adam Rifkin
9. **Gigoló**
Mike Mitchell
10. **Los elegidos**
Troy Duffy

Egunik HOTZENA

2001eko abenduaren 15a

-7 °C



AUTO salduenak

1. **CITROEN XSARA**
38 auto
2. **Opel Astra**
33 auto
3. **Ford Focus**
31 auto
4. **Renault Megane**
17 auto
5. **Opel Zafira**
17 auto
6. **Ford Fiesta**
13 auto
7. **Nissan Almera**
11 auto
8. **Opel Vectra**
11 auto
9. **Renault Scenic**
11 auto

Autoei buruzko datuak:
2001.1.1 / 2001.10.31

Egunik EURITSUENA

2001eko azaroaren 13a

56,4 L

BIZTANLE
kopurua
15.107

Jaiotakoak
119

Hildakoak
88

Etorritakoak
273

Joandakoak
236

ALDEA
+68

laz baino 68 biztanle gehiago gara. Goiko datuetan ikus daitekeen bezala, jaiotakoak eta kanpotik herrira etorri direnak, hil direnak eta kanpora joan direnak baino gehiago izan dira. Guk azkeneko sei urtetako datuak ditugu; horien arabera, aurtengoa izan da biztanleriak gora egin duen lehen urtea.

2000ko abenduaren 1etik 2001eko azaroaren 30era bitarteko datuak.



Sukaldeak. Horma armairuak. Neurritara egindako altzariak. Ateak eta leihoak. Arozlanak.

Bergara ☎ 943 76 58 86 / 670 765 886

Urte berri on!!

Urtean JAIOTAKOAK

URTARRILA

- 1 Uxue Garin Balda
- 8 Oier Arevalillo Labaien
- 9 Maialen Verguizas Arroitauregi
- 10 Aitor Garitaonandia Prieto
- 11 Alex Barragán Rodríguez
- 15 Olaia Santamaría Sampietro
- 26 Nora Luna Urrutia
- 28 Ainara Rubio Matilla
- 30 Jone Ibarra Guridi
- 31 June Igarza Gimber

OTSAILA

- 4 Nora Ormaetxea Abascal
- 14 Julen Núñez Sánchez
- 19 Christian Castelo Tena
- 20 Josu Elizburu Elgarresta
- 22 Nora García Iglesias
- 23 Uxue Agiriano Iñarra
- 27 Martxel Belategi García
- Eider Sasiain Salgado

MARTXOA

- 3 Olatz Murgizu Laskurain
- 8 Elisabet Rodríguez Irizar
- 11 Maitane Urkiola Martínez
- 12 Jon Armendariz González
- 16 Naroa Herrero López
- 17 Aitor Esnaola Sorraluze
- 20 Maddi Bengoa Arregi
- 22 Gaizka Gantxegi Gabilondo
- 26 Elene Arruti Lapeira
- Joane Iglesias Prey
- 29 Itsaso Arzak Aperribai

APIRILA

- 1 Markel Laskurain Arrese-Igor
- 2 Janire González Pineda
- 4 Julen Murgiondo Izagirre
- 6 Jon Irureta Barrena
- 7 Ane Martín Pineda
- 9 Asier López Soto
- 10 María Edroso Rueda
- 11 Ander García García
- 15 Anne Zengotita Albisua
- 21 Alex-Ander Arenaza Díez
- 25 Josune Jiménez Mujika
- 26 Maider Oregi Gallardo
- 27 Ander Etxaniz Unanue
- 28 Oihana Laskurain Lauzirika

MAIATZA

- 5 Maider Gorosabel Azkarate
- Julen Cabo Mández
- 10 Andoni Fernández Fernández
- 14 Nekane Ramudo Movellán
- 15 Aitana López Ledesma
- 17 Igor González Ferreiro
- 22 Ager Kalboetxeaga Zabaleta
- 23 Eider Nájera Larrañaga
- 25 Noha Garagorri Jebali
- 28 Danel Soto López
- Koldo Herrero Garai
- 31 Leire Pineda Cubillo

EKAINA

- 6 Ioane Iribecampos Domenech
- 8 Eider Etxaniz Lasa
- 10 Asier Gallastegi Beroiz
- 11 Maddi Goenaga Jauregi
- 12 Julen Gardoki Larrañaga
- 15 Aiora Arregi Gutiérrez
- 22 Oihane Altube Urkia
- Maite Sancho Arakistain

- 23 Oihane Etxebarria Redondo
- Gaizka Etxebarria Redondo
- 26 Adrián Sánchez Heis
- Mikel Moñux Ibarra
- Unai Sampietro Alberdi
- 28 Ainhoa Sánchez Henao
- Lucía Robla Rodríguez

UZTAILA

- 5 Oihana Durán Hervás
- Jone Mujika Unamuno
- 10 Lander Romero González
- 17 Markel Eguren Durana
- 21 Naia Rupérez Díaz
- Iñaki Gorroño Franco
- 23 Martxel Moral Lasheras
- 27 Unai Txurruka Loidi
- Iñaki Mujika Intxausti
- 31 Markel Arizmendiarieta Elortza

ABUZTUA

- 13 Julen Ugarte Irusta
- 17 Urtzi Sasiain Gómez
- Ibon Sasiain Gómez
- 29 Markel Salgado Álvarez
- Mikel Larrion Moro
- Ane Kortabarria Pérez

IRAILA

- 4 Ane Azkarate Unamuno
- 8 Oneka Gil Muro
- 10 Paula García Frago
- 14 Aroa Edroso Gutiérrez
- 16 Izar Kortabarria Barruso
- 20 Julen Etxabarri Goiti

- 23 Andoni Rodríguez García
- 25 Mireia Arteaga Jiménez
- 26 Nerea Juaristi Berasategi
- 28 Olaia Jiménez Flores

URRIA

- 2 Irati Loidi Aizpuru
- 4 Maddi Igarza De Lucas
- Jennifer Caballero García
- 6 Ibon Muniategiandikoetxea
- Larrañaga
- 11 Haritz Díaz de Gereñu Dos Santos
- 13 Oier Terrazas Reglero
- 15 Ariane Ortiz de Jocano Gómez
- 18 Eneritz González Arruti
- 21 Malen Olañeta Vicente
- 28 Olatz Alberdi Garmendia
- 29 Andoni Olabarria Franco
- 30 Mireia Sebal Lazpiur
- Maitane Karasatorre Basauri

AZAROA

- 15 Irati Olabarria Lazkano
- 19 Iker Amutxastegi Alberdi
- 20 Alazne Mujika Epelde
- 25 Aimar Gabilondo Iturriaga
- 26 Josu Gallastegi Iturralde
- 27 Jon Zeziaga Luarizaristi
- 27 Unax Arana González

ABENDUA

- 2 Irati Alberdi Azula
- 5 Unai Fernández Díez
- 5 Enaitz Azkarate-Askasua Alferez
- 11 Izar Oiartibe Ugarte

Urtean HILDAKOAK

URTARRILA

- 2 Milagros Arregi Akiso, 71 urte
- Luis Alberdi Losada, 68 urte
- 3 Victoria Aspiazu Iturralde, 89 urte
- 4 Antonio Díez Fernández, 99 urte
- 7 Begoña Arana Ariznabarreta, 70 urte
- 8 Justo Egaña Muruamendiaraz, 87 urte
- 11 Faustino Díez Padilla, 74 urte
- 15 Martín Murua Mendizabal, 53 urte
- 18 Gracián Lete Aranguren, 85 urte
- Catalina Molina Peñuela, 73 urte
- Valentín Larrañaga Larrañaga, 86 urte
- 19 María Begoña Sagastume Lezeta, 60 urte
- Arantzazu De Zaldúa Anabitarte, 80 urte
- 20 Jesus Alberdi Atxotegi, 83 urte
- 21 Sor María Concepción Arrieta, 88 urte
- Fernando Rodrigo Dován, 61 urte
- 25 Alicia Pérez Hurtado, 30 urte
- Máximo Hernández Muñoz, 71 urte
- 30 Valentín Santos Rivas, 63 urte

OTSAILA

- 5 Victoria Tomasa Oianguren, 85 urte
- 9 Mária Pérez Del Olmo, 84 urte
- Casiana Jauregi Laskurain, 97 urte
- 12 María Concepción Alberdi, 91 urte
- Paulina Gallego Lozano, 91 urte
- 19 Javier Del Águila Astoreka, 69 urte
- 21 Francisco Agirre Ondarra, 75 urte
- Ursula Rogel Antón, 87 urte
- 22 Hipólita Ugarte Arregi, 90 urte
- 23 Alejandro Alberdi Alberdi, 92 urte
- 28 Alejandro Iturbe Atorrosagasti, 74 urte

MARTXOA

- 1 José Antonio Ibarzabal, 64 urte
- 2 José María Azkarate Azkarate, 78 urte
- 12 Juan Moreno García, 85 urte
- 16 Sabino Urtzelai Gantxegi, 95 urte
- 22 Dominica Iasisasmendi, 92 urte
- 24 José María Alkorta Mujika, 94 urte
- 28 Vicente Eguren Agirrezabal, 75 urte

APIRILA

- 3 Carmen Pizarro Yáñez, 86 urte
- 9 Pilar Erdabide Etxaniz, 82 urte
- Jose Maria Uribe-Etxebarria, 71 urte
- 12 Aurea Barreiro González, 74 urte
- 16 Lucio Agirrezabal Zangitu, 67 urte
- 19 Luisa Zeziaga Ugarteburu, 90 urte
- 21 Luisa Pino Barbero, 93 urte
- 24 Timotea Albisua Zangitu, 83 urte
- 26 Manolita Gabilondo Aizpiri, 83 urte
- 27 Juan Bote González, 83 urte

MAIATZA

- 1 Emeteria Uriarte Aspiazu, 94 urte
- 2 Conrado Inza Askasibar, 90 urte
- Benita Lete Arriola, 78 urte
- 3 Cipriano Muruamendiaraz, 80 urte
- 14 Moisés Belategi Bengoa, 79 urte
- 19 Juana Berraondo Larrea, 84 urte
- 20 José Ángel Iraeta Alberdi, 47 urte
- 20 José María Lazpiur Goirizelaia, 42 urte
- 24 Felisa Elortza Guridi, 72 urte
- 28 Félix Arantzabal Laskurain, 82 urte

EKAINA

- 2 Rufina Zugasti Okina, 93 urte
- 3 José Luis Arrese-Igor, 73 urte
- 8 José Ramón Mendikute Agirre, 66 urte
- 11 Victorina Zuñalga Txintxurreta, 80 urte

- José Olabide Mujika, 79 urte
- 12 Juliana Saizar Alberdi, 79 urte
- 15 Carmen Mulas Jiménez, 63 urte
- 19 José Madariaga Agirreolea, 61 urte
- 25 Pablo Zabaljauregi Mondragón, 75 urte

UZTAILA

- 1 José León Jauregi Gantxegi, 94 urte
- 13 Karmelo Gallastegi Unamuno, 66 urte
- Salvador González Rodríguez, 81 urte
- 14 Andrés Iraolabeitia Idueta, 77 urte
- 16 Gabriela Aiatstui Lizarralde, 90 urte
- 17 Víctor Alonso Lozano, 83 urte
- 21 Justa Zubia Eguren, 80 urte
- 22 Dolores Ortiz Castro, 94 urte
- 24 Juan José López de Abetxuko, 53 urte
- 31 Blasa Arregi Ereño, 89 urte

ABUZTUA

- 1 Miguel Gurrutxaga Lizarralde, 89 urte
- 2 Mariano Lasanta Sainz, 73 urte
- 4 Karmelo Iturrospe Sasiain, 50 urte
- 5 Sor Alejandra Uranga Etxaniz, 90 urte
- Pedro Luis Aranguren Bideluze, 55 urte
- 6 Celestina Oteiza Jaya, 85 urte
- 11 María Asunción Loidi Igarza, 81 urte
- 15 Eulalia Muñoz Herrán, 56 urte
- 18 José Medrano Abad, 69 urte
- 22 María Argarate Alberdi, 83 urte

IRAILA

- 3 Dolores Mujika Gorrotxategi, 82 urte
- 7 Ángel Iñurrategi Garitano, 77 urte
- 11 María Concepción Sopelana, 36 urte
- Felisa Larrañaga Etxebarria, 76 urte
- 12 Pedro Marín Pérez, 64 urte
- 24 Valentín Gorosabel Larrañaga, 84 urte
- 25 Teresa Larrañaga Telleria, 91 urte

URRIA

- 3 Juana Epelde Arando, 90 urte
- 5 María Dolores Ojanguren, 88 urte
- 8 Petra Retolaza Arantzabal, 84 urte
- 10 Cristina Aranburu Gallastegi, 86 urte
- 12 Eustaquia Garitano Lizarralde, 96 urte
- 16 María Pilar Elkorobarrutia, 77 urte
- 21 Mateo Gabilondo Alberdi, 74 urte
- 22 Valentín Eraña Balanzategi, 81 urte
- 24 Irene Matias Jiménez, 74 urte
- 27 Victorino García Cajadura, 81 urte
- 28 Jesús María Gaztelu Alberdi, 47 urte

AZAROA

- 3 Eulalia Andrinua Basterretxea, 79 urte
- 4 Jabier Otazua Peña, 74 urte
- 6 Pilar Ibarrola Arrieta, 68 urte
- Avelino Abarrategi Abarrategi, 73 urte
- 12 Elena Bideluze Barandiaran, 84 urte
- 22 Francisco Pardo Elvira, 78 urte
- 24 Iker Eguren Medina, 19 urte
- 25 Jesús María Garaiz Iturbe, 54 urte
- 26 Bernardo Miota Ojeda, 68 urte

ABENDUA

- 2 Caridad Zabala Iñarra, 83 urte
- 7 Bibiana Urkizu Eguren, 92 urte
- 8 Elias Guenetxea Arantzabal, 85 urte
- 9 María Luisa Yeregui Huarte, 69 urte
- 13 Roman Moñux Jimeno, 78 urte
- 13 Juana Wic Jiménez, 86 urte
- 17 Francisco Azkarate Jauregi, 78 urte
- 17 Miguel Gimber Madueño, 73 urte

Jaiotako eta hildakoei buruzko datuak: 2001.1.1 / 2001.12.19

BERGARA

Margoak

Amillaga 1, 1 pabilioia,
goiko solairua.

162 posta kutxa,
20570 BERGARA

Tel.: 943 76 97 31
Faxa: 943 76 97 32.


bergara.margoak@terra.es

ONENA ETA TXARRENA

2001. urtea amaitzear dago eta laster urte berriari ongiatorria egingo diogu. Horrelakoetan balantzea egiteko ordua izaten da. Urteko 365 egunek gauza asko ekarri dizkigute, era guztietakoak, logikoa denez: pozgarriak batzuk, zoritxarrekoak beste hainbat. Herriko zenbait pertsona ezagunengana jo dugu haien iritzia jakiteko asmoz. Urteko albisterik onena eta txarrena aukeratzeko eskatu diegu. Hona hemen jasotako erantzunak.



REYES AZKOITIA
BKEko pilota saila




JOXE ARRIETA
Aritzeta abesbatzako presidentea

↑ IKER MURUAMENDIARAZ
Gauza positibo gutxi gertatu diren susmoa dut. Hala ere, zerbait nabarmentzearen, kirol albiste bat azpimarratuko dut: Ikerrek 2. mailako lau terdiko txapelketan egindako lana.

↑ ABERTZALEON EMAITZAK
Albiste positibo bat topatzea zaila egiten zaidan arren, maiatzaren 13ko Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan abertzaleok lortutako emaitzak goiraipatuko nituzke.

↓ IRAILAREN 11KO ATENTATUA
Irailaren 11n Ameriketako Estatu Batuen kontra egindako atentatuak eta horrek ekarri dituen ondorioak. Hori izan da, nire ustez, urteko albiste txarrena, zalantza barik.


↓ GERRAK ETA POBREZIA
Hildakoen irudiak edonon sartzen zaizkigu etxeetara telebistaren bitartez, modu gordinean. Telebista kateetako arduradunek ez dute lotsarik horiek inolako zentsura barik azaltzeko.



IÑIGO ZAITEGI
BKEko presidentea




TOMASA ZABALETA
San Joxepeko presidentea



FRAN ITURBE
Musikaria



ANA IZTUETA
Bedelkar-eko presidentea



XABIER AZKOITIA
Santa Marinako parrokoa

↑ GALDERA HONI ERANTZUN
Joan den ekainean, lan-istripu larria izan nuen, eta zuen galderari erantzun ahal izatea da niretako albiste onena. Askotan ez diogu osasunari behar besteko garrantzirik ematen.

↑ BOLUNTARIOEN URTEA
Gaurko gizarte suntsitzailan, aurten ospatu den Boluntarioen Nazioarteko Eguna azpimarratuko nuke, kultura sortzaile eta solidario baten adierazle izateagatik.

↑ GIZA GENOMA
Giza genoma aurkitzea sekulako aurrerapausoa ekarriko du, gaixotasunak sendatzeko orduan, adibidez. Klonazioaren gaia ere hor dago. Ikaragarria da egiten ari dena.

↑ PARKING BATEKO PROIEKTUA
Herriko komertzioa bultzatzeko beti aldarrikatu izan dugu aparkalekuak egitea. Antza denez, Irala kalean parking bat egiteko asmoa dute, eta hori pozgarria da guretako.

↑ ELOSUKO ABADE ETXEA
Hilabete luzez, aste bukatzerero, 50 lagun inguru izan dira auzolanean nahiko galduta zegoen Elosuko abade etxea konponatzen. Bere apaltasunean, izugarriko garrantzia du.

↓ JASANDAKO LAN-ISTRIPUA
Aurrekoarekin lotuta, jasandako lan-istripua izan da urteko gauza txarrena nire kasuan. Benetan gaizki pasatu nuen, eta ez nuela aurrera egingo ere pentsatu nuen.

↓ DORRE BIKIEN ATENTATUA
Dorre Bikien kontrako eraso, eta horren ondorio politiko eta ekonomikoak. Nire ustez, atentua herrialde aberatsek pobreekiko egin izan duten esplotazioaren ondorioa izan da.

↓ ERRADIKALIZAZIOA
Ideologiaren erradikalizazioa indarrean dago eta hori dira Israelen eta Palestinaren arteko auzia, Afganistan eta Ameriketako Estatu Batuen artekoa, eta beste asko. Okerrera goaz.

↓ ORDUTEGI LIBREA
Dendari txikiok ia ezinezko dugu superfizie handiei aurre egitea. Are gutxiago, superfizie handiek lortu nahi duten ordutegi librea abian jartzen bada. Gure kalterako neurria da hori.

↓ EGOERA POLITIKOA
Zoritxarrez, hildako gehiago, eta ETak bere autismoan jarraitzen du; alderdiak ez dira gai egoerari irtenbide bateratua emateko; espetxeak beteago eta sendikoak okerrago.

Nereea


Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak
Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Gabon zorientsuak guztioi





MARTIN GARITANO
Kazetaria



MARKOS GABILONDO
Komite Internazionalistak-eko kidea



EDURNE AZUARA
Aktorea



ALFONSO ALONSO
Udaltzainburua



NEKANE GABILONDO
Jarduneko haur/gazte arduraduna

↑ JOSE MARI ETXANIZ
Jose Mari Etxaniz hogeita bat urteren ostean Bergaran izatea berriz ere. Horixe azpimarratuko nuke, inongo zalantzarik gabe, aurtengo urteak eman digun gauza hobereena bezala.

↑ M-13KO HAUTESKUNDEAK
EAEko hauteskundeetan jasotako emaitzek Mayor Orejaren eta PPren politikari freno jarri ziotelako. Eta hori horrela izanik, euskal kulturari onura ekarri diote emaitza horiek.

↑ EGOERA PERTSONALA
Izan ere, aurtengo urtea, profesionalki batez ere, oso berezia izan da. Zorte handia izan dut *Hasiberriak* saioan parte hartzen eta jende interesgarri asko ezagutu dut.

↑ EUSKAL FUTBOL TALDEAK
Kirol mailan, euskal futbol taldeek lehenengo mailan jarraitu ahal izan dutela aurtengo denboraldian. Alaves taldea izan ezik, gainerakoek asko sufritu ondoren lortu dutelako, gainera.

↑ JOSE MARI ETXANIZ
Jose Mari Etxaniz 21 urte eta gero berriz Bergaran izatea. Eta horrekin lotuta, Jose Mari- ren alde herrian antolatutako ekitaldietan hainbat sektoretako jendeak bat egin izana.


↓ AFGANISTANGO INBASIOA
Gerra bat beti da gauza txarra, baina are txarragoa izaten da kanpotik eragindakoa baldin bada, Afganistango gerrarekin joan zen irailetik hona gertatu bezala.

↓ IRAILAREN 11KO ATENTATUA
New York-en gertatutakoa oinarri hartuta, gaur egun zabalitzen ari diren politika globala. Irailaren 11koa aitzakia hartuta, eskubideen aurka doan politika globala zabalitzen ari baitira.

↓ IRAILAREN 11KO ATENTATUA
New Yorkeko gertakaria. Batetik, jende ugari hil zelako, eta bestetik, Afganistango gerra ekarri duelako. Gainera, ikusteko dago oraindik datorren urtean zer ekarriko ote duen.

↓ NEW YORK-EKO ATENTATUA
Irailaren 11ko New Yorkeko atentatuaren ondorioz, Afganistanen izan den gerra. Izan ere, gerrak nola hasten diren jakiten dugulako, baina nola amaituko diren, aldiz, ez.

↓ HERRIAREN INGURUNEAK
Obren eraginez herriak jaso duen eraso. Beasain-Durango moduko azpiegitura handiez dihardut. Hainbat egiten ari dira Bergaran, eta ingurunean erabateko eragina izan dute.



IÑIGO HERRERROS
BGako kidea




AINHOA ARIZABALETA
EHEko kidea



JULEN ALBERDI
Bergarako Orfeoien presidentea



ALAZNE IRAZABAL
Mizprialdeko koordinatzailea



ALBERTO URRIOLABEITIA
Tabernaria

↑ EGIN DITUGUN EKINTZAK
Egindako ekintzei esker, Gazte Asanblada eta gaztetxea forma hartuz joan dira. Azpimarratu nahi nuke, era berean, badi- rudiela dagokigun lokala izango dugula.

↑ BERGARAN JUSTIZIA
Herrian justizia euskalduntzeko sortu den plataforma. Baita euskara normalizatze-ko Kontseiluak Plan Estrategikoaren inguruan herrietan abian jarritako plana ere.

↑ LAUSARDI KORUA
Lausardi Koru Sinfonikoaren sorrera. Esperientzia berria da, eta Goikubaluren zein gure aktibitatea aberasteko urratsa dela uste dut. Ilusio handiaz ari gara lanean.

↑ OSASUNA FAMILIAN
Gure familian osasun arazorik ez izatea nabarmenduko nuke. Azken urteotan bolada txar bat izan dugu eta aurren, zorionez, guztiok ibili gara ondo. Askotan ez dugu hori baloratzen.

↑ M-13KO HAUTESKUNDEAK
Maiatzeko hauteskundeetan alderdi nazionalista batek irabazi izana, nahiz eta aurretik egindako inkestek alderdi popu- larrak irabazteko aukera asko zituela adierazten zuten.

↓ OKUPAZIOARI ERASOAK
Bergaran ez bezala, oku- pazio mugimendua jasaten ari den eraso (Gasteizen, Donos- tian eta Ordizian, adibidez). Gaz- tetxeen aurkako muntaia poli- zialak ere izugarriak izan dira.

↓ EUSKARA NAFARROAN
Euskararen aurka Sanzek eta UPNk hartu dituzten neu- rriak, dirulaguntzen murrizketa, esaterako. Gainera, Garzonek AEK ahuldu nahian aurrera daraman judizializazio prozesua.

↓ IRAILAREN 11KO ATENTATUA
New Yorken jazotakoa eta horrek agerian utzi duena. AEB- takoa oso gogorra izan zen, bai- na ondorioz Afganistanen sor- tutako gerrak 1. eta 2. mailako hildakoak daudela argi utzi du.

↓ MUNDUKO EGOERA
Munduko egoerak txarre- ra egin du: israeldarren eta pale- stinarren arteko gatazka, Afga- nistango gerra, Hego Amerikan gosea zabalitzen ari da... eta Eus- kal Herrian ere soluziorik gabe.

↓ IRAILAREN 11KO ATENTATUA
Irailaren 11ko atentatua. Estatu Batuetan jende asko hil zelako; baina baita ere aitzakia izan zelako Estatu Batuetan, euren botere guztia agerian jar- tzeke Afganistan inbadituta.

Iturkintza Berri

**INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa
Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!**

Amillaga 1 (B Pabilioia) 943 76 28 04 BERGARA

URTARRILA




*"Denok izaten dugu,
noiz edo noiz,
komunikatzeko beharra"*

JON LÓPEZ
UDALEKO HEZITZAILEA
2001-01-26



*"Uniformia jantzi neban
lehen egunian sekulako
lotsia pasau neban"*

ALFONSO ALONSO
UDALTZAINA
2001-01-26



Abendutik itxita zegoen igerilekuan konponketa lanak hasi ziren

Igerilekuko aire egokituaren hodi eta sabai zati bat erori ziren igerilekura. Teknikariek egin beharreko konponketen kostua eta ematen zuten segurtasuna aztertu zuten, konponketak berehala egin edo Agorrosingo proiektuaren barruan sartu erabakitzeko. Konponketa lanak aurrera eramatea erabaki zuten. Igerilekuak martxoaren 24an zabaldu zituzten. /2001-01-12

HILEKO ESALDIA

"Herrian ideia asko dituen jende ugari dago, ideiak garatzeko toki aproposa daukate gaztetxean"

IÑIGO HERREROS/ GAZTETXEKO KIDEA
2001-01-19

HILEKODATUA

1.453

**LAGUNEK EMAN ZUTEN
ODOLA 2000. URTEAN**

2000. urtean, 1.453 lagunek eman zuten odola Bergaran. Deba ibarrean odol emate gehien Bergaran egin ziren. /2001-01-19

ABIADURA MURRIZTEKO IRTENUNEAK MATXIATEGIN

↑ Oinezkoen segurtasuna bermatzeko, abiadura murrizteko irtenuneak jarri zituzten Matxiategi kalean. /2001-01-19

MAYC-EKO LANGILEEN ESKAEREK ERANTZUNIK EZ

↓ Mayc-eko langileek grebak egin zituzten, beraien hitzetan zuzendaritzaren jarrera larderiatazalea salatuz. /2001-01-19

AIPAGARRI




USOA MENDIKUTE
Artista

Usua Mendikute artistaren erakusketak izan zen kultura etxean. *Pop-art* estiloaren jarraitzailea da Usua eta bere lanak estilo horretan egin ditu. /2001-01-12



NERE AMAIA ZABALA
Zinegotzia

Kultura batzordearen barruan dagoen Jarduerak, Taldeak, Gazteria eta Jaiak azpibatzordeko buru izendatu zuten urtarrian Nere Amaia Zabala. /2001-01-12



MIKEL ANDUEZA
Aita domingotarra

Hemeretzi urte darar matza Mikelek Hego Amerikan. El Salvadorren zegoen lurrikara izan zenean. Errepublikak hondatuta geratu zela kontatu zigun. /2001-01-19



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zorionak eta urte berri on!!

Fraiskozuri 5 Tf. 943 76 13 40 / 41
Matxiategi 5 Tf. 943 76 57 41



Urte berri on!

GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • Faxe: 943 76 32 52 • BERGARA



OLABE

okindegia - gozolegia

*Matsiategi 4.
Tf. 943 76 57 99*

*Zurradero 2.
Tf. 943 76 01 26*



*Lantokia.: Amillaga kalea
Tf. 943 76 72 28*

Bergara

**IRALA
Autozerbitzua**

*Trizar pasealekua, 3
Tf. 943 76 10 71*



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

BOLU SUKALDEAK

*Gabon zoriontsua
opa dizue*



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02



ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE ZERBI-
TZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

**Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA**

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Unitate berria Aita Mennin

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak inauguratu zuen unitate berria. Ospitale psikiatrikoak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzea du helburu nagusia. /2001-01-11

► EUSKAL HERRIA

ETAk R.Diaz Garcia sukaldaria hil zuen

ETAk, Itsas Armadako Komandantziako sukaldari bat hil zuen Donostian, sukaldariaren auto azpian lapa-bonba jarrita. Beste hiru zauritu ere izan ziren. /2001-01-26

► MUNDUAN

Indiako lurrikaran 15.000 hildako

15.000 hildako inguru eta 35.000 zauritu izan ziren Indiako Gujarat estatuan gertaturiko lurrikararen ondorioz. Azken urteetako lurrikaririk gogorrena izan zen. /2001-01-26

ONDARE HISTORIKOA



Santa Katalina konpontzeko ardura hartu zuen Diputazioak

Diputazioak bere gain hartu zuen Santa Katalina ermita eraberritzeko lanen ardura. Hala ere, martxora arte ez zituzten hasi gotiko berantiar estiloko ermita horren konponketak. Aurreko urteko martxoan erori ziren absidea, eskuinaldeko horma eta zurezko zeru baliotsua konpontzeko, 22 milioi aurrez ikusi zituen Diputazioak. /2001-01-26

KIROLAK

Herriko gimnastak hirugarren Espainiako Txapelketan

Ipurua taldea ordezkatzuz, Jaione Igartua eta Ane Miren Fernández gimnastek hirugarren postua eskuratu zuten Malagan jokaturako Espainiako gimnasia erritmikoko gazte mailako txapelketan. Leire Lasak senior taldean parte hartu zuen, eta 13. geratu zen taldea. /2001-01-12

KULTURA

Erabiltzaileek eskatuta, liburutegiko ordutegia zabaldu zen

Erabiltzaileek egindako eskaerari jaramon eginez, liburutegiko ordutegia zabaltea erabaki zuten arduradunek. Zerbitzua hobetzeko hartu zuten erabakia, eta harrezkero goizeko 09:00etan zabalitzen da liburutegia. Bi mila bazkide ditu, horietatik, 1.100 ikasleak dira. /2001-01-12

HASIBERRIAK TELESAILAN SARTZEKO PROBAK EGITEN /2001-01-26



EDURNE AZUARA
AKTOREA

Abendu hasieratik ETBko 'Hasiberriak' telesailean berriro

Telesaileko lehen denboraldia eta gero, *No temas al invierno* film laburrean parte hartu zuen Edurnek. Abenduan berriro ere hasi zen pantailan agertzen.

GIZARTEA

Debagoieneko lehenengo jolasparkea Amillagan

Urtarrilean bagenekien Okipark jolasparkea zabalduko zutela Amillagan. Esther Ruiz eta Jaione Lópezek ireki zuten martxoan 400 metro koadroko umeendako gunea. Jolasparkea 110 umeendako prestatua dago. Biltegia, kafetegia, harrera eta umeek

jolasteko gunea bereizita. Jolasteko guneak 200 metro koadro ditu. Bi eremutan bereizten da gune hori, eta umeak, duten adinaren arabera, batean edo bestean egoten dira. Asteko zazpi egunetan egoten da irekita Okipark jolasparkea. /2001-01-19



Amillagan dago jolasparkea.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Odontologia orokorra

Inplanteak

Ortodontzia

Ahoko zirurgia

Fraiskoizuri 5A, I-D. BERGARA

Zorionak eta urte berri on!



Tf. 943 76 56 88



Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkalea 35

URTE BERRI ON!

☎ 943 76 24 89

OTSAILA

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

21

“Eibar-Gasteiz autobideak bidesaria behar duela esaten dugunean, ez da inori onura egiteko”

ANTTON JAIME / ERREPIDETAKO DIPUTATUA
2001-02-23

URTE ESPETXEAN ODOL DELITU BARIK

Jose Mari Etxanizek 21 urte zermatzen espetxean; ordurako sei urte ziren zigorraren hiru laurdenak beteta zituela. /2001-02-16



“Gurasoek irakurtzen ez badute, zaila da haien umeak horretan zaletzea”

LOLO RIGO
IDAZLEA
2001-02-02



“Lantegietako ugazabek eta langileok gizarte ezberdina nahi dugu”

LUIS M. SÁEZ
ELA-KO ARDURADUNA
2001-02-09



Musika Eskola: hamazazpi urte musika irakasten

Musika Eskolak daraman ibilbidea ikusita, etorkizunean ez da musika faltako Bergaran. Ia 500 ikaslek hasi zuten aurtengo ikasturtea. Herrian dauden talde handien harrobia da Musika Eskola. Lehen pausoak han egin ondoren, lagun ugarik egin dute pausoa Orkestra Sinfoniko, Akordeoi Orkestra, Gazteen Banda, Haurren Abesbatza edo Udal Musika Bandara. /2001-02-09

2.245.000 PEZETA BERGARATIK EL SALVADORRERA

↑ Oscar Romero Solidaritza Batzordeak batutako dirua ADIC gobernuz kanpoko erakundeak jaso zuen. /2001-02-16

AUDITORIOKO PROIEKTUA ATZERATUTA

↓ Iñaki Aspiazuk seminarioko proiektua idazteari uko egin zion, esleipena ematerakoan arazoak izan zirelako. /2001-02-23

AIPAGARRI



ROBERTO IZAGIRRE
Udaleko harrerakoa

Bergarar onenaren saria jaso zuen Roberto Izagirrek Amodiozko Gutunen Lehiaketan. Aurretik akzesita eta bigarren saria ere jasoak zituen. /2001-02-09



AXEN GARITANO
Txakur zaintzailea

La Molinan bukatu zen txakur leren Pirena proban hamargarren izan zen Axen Garitano. 300 kilometro inguru bete zituzten Pirena proban. /2001-02-09



JULEN ALBERDI
Orfeoiko presidentea

Bergarako Orfeoia eta Arrasateko Gokobalu abesbatzak sortu berri zuten Lausardi Koru Sinfonikoaren berri eman zigan Julen Alberdik. /2001-02-16

ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta Faxa 943 76 58 16

Plastifikazioak DIN A4 eta DIN A3
Fax zerbitzua
Enkuadernazioak
Eskolarako materiala

Kautsozko zigiluak
Fotokopia digitalak zuri-beltzean CDarekin
KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN
PLANOEN KOPIAK, ESKANEATZEA ETA PLOTEATZEA

ESKANEATZEA KOLORETAN MAKINA DIGITAL BIDEZ



“la Caixa”

Fraiskozuri plaza 7. Telefonoa: 943 76 41 16
BERGARA

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Metalgintzan greba egiteko deialdia

Grebarako deia ELA, LAB eta ESK sindikatuek egin zuten. 35 orduko lan astea lortu bitartean, aurten 40 ordu murriztea eskatu zuten sindikatuek.
2001-02-02

► EUSKAL HERRIA

Txapote atxilotu zuten Ipar Euskal Herrian

Francisco Javier Garcia Gaztelu ETako ustezko buruzagia atxilotu zuten Angelun. Besteak beste, M.A. Blancoren parte hartu izana leporatu zioten.
2001-02-22

► MUNDUAN

Beste lurrikara bat El Salvadorren

Hilabete bakarrean bi lurrikara jasan ditu El Salvadorrek aurten. Azken honetan, 274 hildako eta 2.400 zauritu izan ziren. Ondorioz, azpiegituren %90 suntsitu zen.
2001-02-13

KULTURA



Amodiozko Gutun IX. Lehiaketa

Ainara Elizondo hondarribarra izan zen Amodiozko Gutun IX. Lehiaketako irabazlea. Jasotako 161 gutunen artean, Joxe Mari Iturralde eta Kirmen Uribe idazleek, Ainhoa Agirreazaldegiren bertsolariak eta Maialen Azpiolearen iazko irabazleak osatutako epaimahaiak Ainarari eman zion lehenengo saria.

Bigarren saria Daniel Martirena lesakarrak eman zuen, eta bergarar onenarena, berriz, Roberto Izagirrek. Irakurle gazteen saria Andoni Arenaza gasteiztarak jaso zuen.

Epaimahaikoek adierazi zuten gutun gehienak tragiakoak zirela. Hala eta guztiz, umorezko gutunak eta gutun zinikoak ere izan ziren artean. /2001-02-16

ERAKUSKETA

Ekialdeko saihebidia ikusteko aukera izan zen Udalean

Antton Jaime Garraio eta Errepideetako diputatuak, Jose Mari Sarasola Errepideetako zuzendariak eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak ekialdeko saihebidearen proiektua aurkeztu zuten. Proiektuaren make-ta eta haren gaineko informazioa izan ziren ikusgai. /2001-02-23

ONDAREA

Elurzuloa eta inguruak konpontzen hasi zen Kapirixo

Gorlako bidean dagoen elurzuloa berreskuratu eta txukuntzeko proiektua aurretik aurkeztu zuen Kapirixok. Diputazioa eta Udala laguntzeko prest agertu zirenean, lanari ekin zioten Debagoieneko ondarea berreskuratzeko elkarteek, baita ondo egin ere. /2001-02-23

FILM LUZERAKO GIDOIA GERTATZEN ARI ZEN /2001-02-02



ASIER ALTUNA "KIXI"
GIDOILARIA

"Gidoia bukatuta, proiektua aurrera eramatea nahi genuke"

Telmo Esnalekin batera *Aupa Etxebeste* filmaren gidoia bukatu du. Orain, produkzio-etxeekin harremanetan dihardute, filma aurrera eramateko.

KIROLA

Hamasei lagunek hasi zuten denboraldia Dordoka taldean

Ekaineko Espainiako Txapelketari begira, hamasei lagunek hasi zuten denboraldia ezinduen Dordoka kirol taldean. ASPACEko taldeko hamasei atletetatik, hiru bergararrak genituen: Kristina Bengoa, Aritz Bikuña eta Agustin Toledo, hain zuzen ere. Atleta gaz-

te haiek Ipintza institutuko gimnasioan eta Agorrosinen hasi zituzten entrenamenduak, ilusio handiz, gainera.

Slalom, boccia eta atletismo probetarako prestatu ziren Dordoka taldean zebiltzan aipatutako hamasei kirolariak. /2001-02-16

ISTILUAK

Retevisión-eko errepikagailuari eraso

Ezezagun batzuek Retevisión-ek Itxumendin zuen errepikagailuari su eman zioten. Suak errepikagailuaren kableak kiskali zituen, eta ekipo teknikoa kalte zuen. Ondorioz, Debagoieneko zenbait herritan Tebista kate batzuetako emisioa etenda egon zen ordu batzuetan. /2001-02-23

ORAIN VIA DIGITALAREKIN, IKUSI NAHI DUZUNA BAKARRIK ORDAINDU



Gabon zoriontsuak eta urte berri on.

eta orain gainera dekoraziorako opariekin.

ZAIAZKO

TELEKOMUNIKAZIOAK.

Telesforo Aranzadi, 3 - Tel: 943 76 10 66 - BERGARA.

BILBO garraioak

Leizariako San Lorentzo 19, 3C.
BERGARA
Telefona: 943 76 35 74
Mugikorra: 609 479 443

Bergara-Bilbo eguneroko zerbitzua

Partikularrendako eta industriendako

Zorionak eta urte berri on!

MARTXOA



"Zalantzas beteta dagoen gaztea naiz, gizaki bat, bere bertute eta miseriekin."

MIKEL URDANGARIN
MUSIKARIA
2001-03-02



"Ikastetxeen funtzio nagusietakoa umeen interesa piztea da"

M. NEMIROVSKY
PSIKOLOGOA
2001-03-09



Jardunek hitzarmena sinatu zuen Goienarekin

Hitzarmen haren bitartez, Debagoieneko euskara elkarteek Goiena kooperatibaren esku utzi zituzten eurek sortu eta ordu arte kudeatzen zituzten herri aldizkariak. Hitzarmenari esker, Goiena kooperatiba herri komunikabideetako talde sendoena bihurtu zen. Ekitaldian euskara elkarteetako presidentek eta Goienako presidente Estepan Plazaola izan ziren. /2001-03-05

HILEKOESALDIA

"Gobernutik bota gintuzten arren, behar gaituztenean ez zaie axola biolentzia gaitzetzten dugun ala ez"

J. M. GARITANO / EH-KO ZINEGOTZIA
2001-04-23

HILEKODATUA

2.754

**MILIOIKO AURREKONTUA
IZANGO DU UDALAK**

Udabiltzaren inguruko iritzi kontrajarriekin onartu zen aurrekontua. EAJ/EAk eta PSE-EEek alde bozkatuta. /2001-03-16

LOKATZA ZIKLISMO ESKOLAK 25 URTE

↑ Zilarrezko ezteietako urtean, 17 txirrindularik jardun zuten Lokatzako lau taldeetan. /2001-03-09

PESAK IBARGARAIKO BULEGOA ITXI ZUEN

↓ Martxoaren 1ean itxi zuen Pesa konpainiak Ibargarain txartelak erosi eta kontsultarako zuen bulegoa. /2001-03-09

AIPAGARRI



TELESFORO MONZON
Euskaltzalea

Telesforo Monzon hil zela hogeitau urte bete ziren. Euskaltzale, idazle eta politikari famatua hil zela gogoratzeko, zenbait ekitaldi egin ziren. /2001-03-09



OIHANA GARITANO
Artista

Bakarka egiten zuen bigarren erakusketa hartan, hogeita sei argazki eta bederatzita margolan tartekatu zituen Oihana Garitano bergarar gazteak. /2001-03-09



XABIER ARREGI "TXARI"
Zinegotzia

Garzon epailearen aginduz kartzelaratuta zuten Xabier Alcala-Mécoco espetxean ia lau hilabete igarotostean, aske utzi zuten ekainaren 25ean. /2001-03-16




OGIZUN

koop. elk.
okindegia

Zorionak denoi!

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

- Lehen mailako zerbitzua
 - Hatzamar bat mugitzeko gauza bazara, Videomatic erabiltzeko ere bai
 - Bideo berri guztiak
 - Zatoz prezioez galdetzera!
- DVD bideoak ere badauzkagu
- 



IRALA

Bideoak

Zorionak eta urte berri on!

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Ibarreko sei Udalek Goienarekin bat

Goiena Komunikazio Zerbitzuek hitzarmena sinatu zuten Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaiorekin. /2001-03-15

► EUSKAL HERRIA

Hauteskundeak Ipar Euskal Herrian


Eskuina jaun eta jabe izan zen Iparaldeko hauteskundeeta. Abertzale-ek emaitza historikoak lortu zituzten Baionan. ABK eta EAJK bina zinegotzi. /2001-03-12

► MUNDUAN

Gladiator garaile Oscarretan

Oscarren 73. ekitaldia izan zen. Ridley Scotten *Gladiator* filma izan zen garaile 5 Oscar eskuratuz. *Tigre y Dragon* eta *Traffic*-ek lau Oscar eskuratu zituzten. /2001-03-25

AIPAGARRI



Gleibat Elfularekin senidetu ginen

Martxoaren 18a ezkerro Gleibat Elfularekin senidetu gaude. Elkartasuneko senidetze ekitaldia Saharako herri hartan egin zuten hango alkateak eta Juanjo Arrieta Bergarako alkateordeak.

Elkartasun senidetzearen helburu nagusia Saharan geldirik dagoen autodeterminazioarako eskubidea bultzatu eta babestea izan zen.

Laguntza humanitaria emateko konpromisoa ere hartu zuen Udalak: batetik, udan Bergarako etxeetan neska-mutiko sahararrak hartzeko aukera ematea; eta bestetik, beharrezkoak dituzten botika, bozgorailu eta mikrofonoak ematea.

Argazkian Juanjo Arrieta eta Gleibat Elfulako alkatea ikus ditzakegu. /2001-03-30

KIROLA

Udalak Agorrosingo azterketa geoteknikoa esleitu zuen

Agorrosingo kirol eremuaren azterlan geoteknikoa Ikerlur SA enpresari esleitu zioten Udaleko agintariak. Esleipenak 1.983.600 pezetako aurrekontua izan zuen. Azterketaren helburua inguruan dauden meategiko galeriak aurkitu eta sor ditzaketan kalteak aztertzea da. /2001-03-02

KIROLA

% 25 merkeago Udal Kirol Zerbitzuetako bazkide txartela

Urte hasieratik igerilekuak itxita egon zirenez, Kirol batzordeak tarifak berregokitzea proposatu zuen.

Batzordeak egindako proposamenari kasu eginez, Kirol Zerbitzuetako bazkide txartela % 25 merkatzea erabaki zuen Udalak osoko bilkuran. /2001-03-30

GIZARTE LAGUNTZAILE VENEZUELAN /2001-03-16



ENERITZ IBARGUREN
GIZARTE LAGUNTZAILEA

Gabonetan etorri eta berriro Venezuelara joango da urtarrilean

Gazte Kooperanteak programarekin Venezuelara joan zen iaz, eta aurten, Venezuelako Unibertsitatean dihardu gizarte laguntzaile. Beste urtebete emango du han. /2001-03-16

BERRIKUNTZAK

Fraiskozuri plazan hogeita hiru farola berri jarri zituzten

Fraiskozuri plazako argiteria aldatu zuen Udalak. Farola berriak jartzeak 8.171.330 pezetako aurrekontua izan zuen, eta Indalux enpresa arduratu zen argiteria aldatzeko lanak aurrera eramateaz. Hala, ordutik hona hogeita hiru farolak argizatzen dute plaza. /2001-03-02

GIZARTEA

Neska-mutikoendako jolastokia egin zuen Udalak Amillagan

Amillagako etxeen ostean egin zuten. Jolastokia egitea inguruan eraiki zituzten txalet berrien ondorio zuzena izan zen, etxe berrien inguruan berdegune edo aisialdigueneak egitea derrigorrezkoa da-eta. Jolastokian hainbat ziburu dago, neska-mutikoei jolasteko. /2001-03-23

KIROLA

Urtebete eta gero, amaituta pilotalekuko hitzarmena

Udalak eta Aspe eta Asegarce pilota enpresek sinatuta zeukaten hitzarmena bukatzea erabaki zuten aho batez. Aurrerantzean, hitzarmen puntualak egingo dituzte, eta horien helburua da jaietan eta egun berezietan lehen mailako partidak antolatzeta. /2001-03-30



PUERTAS BRIKO-ETXE



Ate blindatuak eta barrualdeak, taula aglomeratuak, melaminak, moldurak, marroak, janbak, zurgintzarako materiala, burdiñeriak, egurrezko leihoak, horma-armaiurak

Urteaga 31 - Apdo.261
943 76 07 26
20570 Bergara

ERLOJUDENDA

Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela!

AINH



A

Boni Laskurain 2 ☎ 943 76 47 40

BITXITEGIA

APIRILA



"Gorputza jakintsua da, autosenatzeko mekanismoa dauka"

ENEKO LANDABURU
SUMENDIKO KIDEA
2001-04-06



"New Yorkera joan nahiko nuke, filmetan ikusitako tokiak bisitatzeraz"

LUIS ZABALA
ZINEMAZALEA
2001-04-27



Hamabigarren Korrika-k bederatzi kilometro egin zituen herrian

Aldenik alde zeharkatu zuen hamabigarren Korrika-k Bergara. Apirilaren 2an, iluntzeko 20:30ak aldera Osintxun lekukoa hartu eta tipi-tapa jardun genuen korrika, herrian zehar bederatzi kilometro egin ondoren San Antonion Antzuolarako bidea hartu zuen arte.

Giro ezin hobea izan zen, euskararen aldeko ibilbidera jende ugari batu zen-eta. /2001-04-06

HILEKO ESALDIA

"Etortzen diren bisitariak harrিতuta geratzen dira Bergarak dituen monumentuekin"

ISABEL LÓPEZ / TURISMO BULEGOKOA
2001-04-20

HILEKODATUA

%80

EUSKALDUNAK UDALEKO LANGILEEN ARTEAN

1995ean Udalak abian jarritako AEBE planak fruituak eman ditu. Udaleko langileen %80 euskaldunak dira. /2001-04-06

6 HILABETE ETA GERO, AMILLAGAKO ZUBIA IREKITA

↑ Eibar-Gasteiz autobideko lanengatik itxita egon ondoren, saihebidetako Amillagako irteera ireki zuten. /2001-04-20

EPAITEGIETAN EUSKARAK BIZI DUEN EGOERA

↓ Justizia administrazioan hartu-eman guztiak euskaraz izatea eskatu zuten herriko zenbait taldek. /2001-04-20

AIPAGARRI



MIKEL LARRAÑAGA
Shotokan taldekoa



MAIDER AZKARATE
Ile apaintzailea



MAIDER ARRIZABALAGA
Jarduneko presidentea

Gasteizen jokaturako txapelketan Euskadiko hautatzaileak ikusi, eta Espainiako Txapelketara deitu zuen Markel Larrañaga bergararra. /2001-04-20

Gipuzkoako emakumezkoen ile apaintzarien IX. txapelketan ikasleen bigarren saria eta ile apaintzaile abangardistarena jaso zituen. /2001-04-27

Apirilaren 5eko Jarduneko batzar orokorrak Maider Arrizabalaga aukeratu zuen president berri. Bi urtez jardungo du karguan Maiderrek. /2001-04-27



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

ETXE PARE-BILINTX

LIBYRYDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12. 943 76 40 50 BERGARA

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA



MIZPILDI



OKINDEGIA



Ondo hasi urte berria!

**Eta kafe
dastaketa!**

Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA



ELUSU S.A
ERAIKUNTZAK




- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
 - Teilatuak
 - Sukaldeak
 - Bainuak
 - Fatxadak

*Baserri eta jauretxeen
erreformetan eta txaleten
eraikuntzan espezializatuta gaude*

**Urteberri emankorra
izan dadila denontzat**

Arruriaga 5 ean gaude
Tel : 943 76 45 50 . Faxa : 943 76 51 45





LAGUN

ARROZTEGIA

Mekolalde 57. 20570 BERGARA
943 76 08 10 (Tailerrekoa)
943 77 02 43 (Etxekoa)
659 774 083



Ateak

Leihoak

Sukaldeko armairuak

Horma armairuak

Era guztietako arotz lanak



50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Jai zoriontsuak izan
ditzazuela!

**Larrañaga
Eguren, B. M.**

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Aretxabaletako Gaztetxea kolokan

Udalak Gaztetxea ixteko agindua eman zuen, ezarritako baldintzak bete ezean. Gaur egun zabalik dago. Bizilagunen nahia zarata gutxiago entzutea da. /2001-04-03

► EUSKAL HERRIA

Hizkuntza Eskubideen Behatokia eratu zuten

Behatokia finantzatzeko akordioa izenpetu zuten Udalbiltza eta Kontseiluak. 11,5 milioi pezetako diru laguntza izan zuen, eta udaran ipini zuten abian. /2001-04-21

► MUNDUAN

Milosevicek etsi egin zuen Justizia aurrean

Jugoslaviako agintariek Slobodan Milosevic lehendakari ohia atxilotu zuten. Bere etxean atxilotu, eta geroxeago kartzelatu egin zuten. /2001-04-01

KULTURA



Alacanteko erlijio musikako lehiaketa irabazi zuen Orfeoia

Noveldas herrian jokaturako Estatuko erlijio musikako lehiaketan lehen saria eta hautazko obraren interpretazio onenaren saria jaso zituen Orfeoia. Hogei talderen artean, Iruñea, Aragoi, Alacant, Madril eta Bergarako taldea aukeratu zituzten antolatzaileek lehiaketan parte hartzeko. Gainerako taldeen maila ikusita, oso pozik ziren emaitzarekin Orfeoioak. /2001-04-06

JAIK

Abelgorri eta ardi barik egin zen Erramu Zapatuko feria

Aziendak ahoeraren (sukar afto-soaren) aurka babesteko, ezin ziren animaliak leku batetik bestera eraman. Animaliarik ez egon arren, egundoko giroa izan zen ferian, eta Euskal Labeleko produktuak, makineria, txorimalo lehiaketa... ikusteko aukera paregabea izan genuen. /2001-04-06

KIROLA

Eskubaloi taldeko kadeteak lehenengo Federazio Txapelketan

BKEko mutilen kadete eskubaloi taldeak Federazio Txapelketa irabazi zuen apirilaren 8an.

Edu Egurennek, Aitor Ibarrek eta Edu Iñarrak entrenatzen zuten taldeak txapelketa borobila egin zuen.

Txapelketa osoan partidu bakarra galdu zuten. /2001-04-20

DENBORALDI BIKAINA IPURUAREKIN/2001-04-06



ANE MIREN FERNÁNDEZ
GIMNASTA


Urtarrilean gimnasia uztekotan dela esan zigun Ane Mirenek

Abenduaren 6an Gasteizen izandako Espainiako Txapelketa irabazi zuen arren, urtarrilean gimnasia uzteko asmoa duela azaldu digu Bergarako gimnastak.

KIROLA

Antxintxika taldea garaile Euskadiko Duatloi Txapelketan

Gasteizen jokaturako Euskadiko Duatloi Txapelketan distantzia ertaineko proban nagusitu ziren Antxintxika taldekoak. Julen Garitano, Aitor Larrea, Iker Larrea, Aitor Rementeria, Aritz Kortabarria, Xabier Uribealgo eta Joseba Zuzetak osatu zuten taldea. /2001-04-27



Distantzia ertaineko proban nagusitu ziren Antxintxika taldekoak.



SANTOS

Ondo igaro Gabon jaiak!

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA. Tf. 943 76 26 10

Ipiñarri zerrategia S.L.

IBARRA Z/G. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

Altzariak Arozgintza Eraikuntza Enbalajea

MAIATZA



"Europar geratzen den azkeneko herri indigena gara euskaldunak"

A. M. LIZARDUIKOA
FILOSOFOA
2001-05-18



"Bergarako baserrien aipamen zaharrena 1391. urtekoa da"

ALBERTO SANTANA
HISTORIALARIA
2001-05-11



LHTren aurkako ibilaldia egin zuten Bergaratik Angiozarrera

Bergarako eta kanpoko seihun bat lagunek hartu zuten parte AHTa Gelditu! Elkarlanean taldeak deitutako ibilaldian. Bergara eta Angiozar arteko ibilaldian, Lastertasun Handiko Trena igaroko den lekuetan geldialdiak egin zituzten ibilaldian parte hartu zutenek, geldialdi bakoitzean antolatzaileek egindako azalpenak entzuteko. /2001-05-04

HILEKOESALDIA

"Poliki-poliki, berbeta hibrido bat dabil nagusitzen belaunaldi berrien artean"

JAIONE ISAZELAI / BADIHARDUGUKOA
2001-05-04

HILEKODATUA

12736

BERGARARREK IZAN ZUTEN BOZKATZEKO AUKERA

Maiatzaren 13ko Autonomi Hauteskundeetan aukera zuten 12.734 lagunetik, % 81,4 joan ziren botoa ematera. /2001-05-18

UMEENDAKO JOLASLEKU IBILTARIA

↑ Jolasleku ibiltaria antolatu zuen Jardunek, umeei euskarazko joko eta abestiak irakasteko. /2001-05-11

LAN-ISTRIPUEN GORAKADA

↓ Hori dela eta, Lan Segurtasuneko Nazioarteko Egunean ordubeteko lanuztea egin zuten hainbat lantegik. /2001-05-04

AIPAGARRI



JESUS KALBOETXEAGA
Kazetaria

Pazkoetako kartel lehiaketa irabazi zuen Jesus Kalboetxeagak. Mezu argia zuela esan zuten epaimahaikideek; hala, saria hari eman zioten. /2001-05-04



RACHAEL OLABARRIA
Futbol jokalaria

Eibartarrak futbol taldean denboraldi bikaina egin zuen. Euskal Herriko txapeldunak izan ondoren, ezin izan zuten Txapeldunen Liga eskuratu. /2001-05-18



EDU MURUAMENDIARAZ
Dantzaria

Azken urteetako lana batzen zuen *Sutargi* ikuskizuna prestatzen ari zen. *Aukeran* koreografia sortu zuenetik, hirugarren lana zen *Sutargi*. /2001-05-25

ETXE BERRIA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

Egin zure opariak Etxeberrian erosiz eta parte hartu **1.200 euro** eta **600 euroko** erosketa-txartelen zozketan

Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 76 12 65




LASA
Jatetxea

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Bergarako herria omendu zuten

Ingeniarien Elkargoak omenaldia egin zion Bergarako herriari, EAEn industria ikasketak eskaini zituen lehen eskola hartzeagatik.

2001-05-26

► EUSKAL HERRIA

Legebiltzarrerako hauteskundeak

Maiatzaren 13an izan ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. EAJ/EA koalizioa garaile izan zen historiako emaitzarik onena lortuz.

2001-05-13

► MUNDUAN

Belusconi garaile hauteskunde nahasietan

Italiako hauteskundeak Berlusconi irabazi zituen botoen %46rekin. Bozkatzeko erabilitako makinek ez zuten erantzun eta nahaste handia sortu zen.

2001-05-14

POLITIKA



EAJ-EAk botoen %54,6 lortu zuten hauteskundetan

EAJ-EAk gora, EHk behera eta EB, PSE eta PPK ere apur bat gora egin zuten Bergaran, Legebiltzarrerako Hauteskundetan. Herriko alderdi en emaitzak desberdinak izan ziren. EAJ-EAk 5.644 boto lortu zituen, 1.998an baino 1.629 gehiago. EHk aldiz, 2.134 boto lortu zituen, 1.998an baino 1.200 gutxiago. PPK, 246 botu gehiago jaso zituen, EBk 207 eta PSE-EEK 87. Partehartzea % 81,4 izan zen. /2001-05-18

EAJ-EA	5.664	% 54,6
EH	3.334	% 20,6
PP	1.021	% 9,8
PP	949	% 9,1
IU-EB	512	% 4,9
Abstentzioa	2.377	% 18,6

TURISMOA

Feritur, Debagoieneko II. Turismo Azoka, izan zen Bergaran

Maiatzaren 12an eta 13an, Debagoieneko II. Turismo Azoka izan zen Bergaran. Seminarioan jarri zuten karpa erraldoian hogeitanduzen izan ziren. Debagoieneko eskaintza turistikoa komertzializatzeko lehen ekimena aurkeztu zuten Mankomunitateak eta Diputazioak. /2001-05-04

GIZARTEA

Institutuko 23 makina Bergaratik Venezuelara bidean

Bergara, Antzuola eta Elgetako 28 enpresak eta Migel Altuna institutuak institutuan zeuden 23 makina Venezuelara bidali zituzten, Pablo Manzanasko Euskaldun Unibertsalaren sortutako La Salle Fundaziora. Eta enpresek makina berriak erosi zituzten instituturako. /2001-05-18

AURRENEKO DISKOA GRABATU ZUTEN /2001-05-11



ALEX MUELA
MUSIKARIA

Cool Panic-ek beste disko bat grabatuko du datorren urtean

Saffety Pin diskoetxearekin argitaratu zuten diskoa maiatzean. Urte hasieran Madrilen eta Frantzian bira egin, eta hurrengo diskoari ekingo diote.

KIROLA

Bergarak agur esan zion hirugarren mailari

Bergarako hirugarren mailako taldeak ezin izan zion mailari eutsi.

Denboraldi hasieran emaitza onak izan zituzten arren, bigarren itzuli eskasa egin zuten mahoneroek. Taldeak behera egin zuten eta ondorioz preferente mailan ekin behar izan dio

denboraldi berriari. Juanina Garai arrasatearrak jarraitzen du entrenatzaile lanetan 2001-2002 denboraldian.

Hala eta guztiz, emaitza guztiak ez ziren txarrak izan futbol taldearendako, bigarren erregionaleko taldea mailaz igo zen-eta. /2001-05-15

GIZARTEA

Droga legalak nahiko hedatuta daude gazteen artean


Udalak 12 eta 18 urte artekoen droga kontsumoaren gainean egin zuten azterketaren arabera, tabako, alkohol eta porruaren kontsumoa hedatuta dago herriko gazteen artean. Porruaren kontsumoa kenduta, Bergaran handiago dena, EAEn parekoak izan ziren emaitzak. /2001-05-11



IBARRALDE
Administrazio Zerbitzuak S.L.

Zerga, lan eta kontabilitatea zerbitzuak.
Finken administrazioa. Elkargokide zenb.: 25.068

► Tel: 943 76 52 88 • Faxa: 943 76 25 64



HELBIDE BERRIA: IBARGARAI, 30 Behea
20570 Bergara
(Gipuzkoa)

MUJIK **FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA



Jakinak

Gabon zoriontsuak opa dizkizue eta
2002. urtea zoriontsua izan dadila espero du.

Eta aukera aprobetxatuz,
geurengan konfiantza izan duten guztiei,
eskerrik asko.

Gabon zoriontsuak!

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

AENOR
Produktu
verifikatuak

6
URTEKO
GARANTIA

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.

Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna

OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63



Ondo pasa
dezazuela
denok!

**Kirol
Ortopedia**



▲
**Etxerako
laguntza
teknikoa**



RPS 421/97

Mastektomiak

**Neurrira eginiko
plantillak.
Oinetakoak**



**Zorionak eta
urte berri on
herritar
guztioi!**



BERGARAKO UDALA

EKAINA



"Herriko gazteen artean drogen kontsumoa nahiko hedatua dago"

ARANTZAZU LOIDI
TEKNIKARIA
2001-06-08



"Araotzen sai arren Gipuzkoako koloniarik garrantzitsuena dago"

JUANJO NOGUEIRAS
NATURAZALEA
2001-06-08



Eskola txikiek Angiozarren ospatu zuten euren festa

Ekainaren 10ean, Angiozarren ospatu zen Gipuzkoako Eskola Txikien Festa. *Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik* lelopean, eta eguraldiak askorik ez lagundu arren, jende dezente batu zen Angiozarren. Gipuzkoako 27 Eskola Txikietako umeak batu ziren, hainbat ekitaldi egiteko. Angiozarreko eskolan ikasten duten zortzi umeek ere hartu zuten parte antolaketan. /2001-06-08

HILEKOESALDIA

"Ekonomiaren hazkunderan inbertsioaren eragina eta honek naturan duena erabatekoak dira"

FERMIN LAZKANO/ KAZETARIA
2001-06-15

HILEKODATUA

1.000

KILO PISATU ZUEN MOSTEI BASERRIKO ZEZENAK

Goitik behera zabaldua 1.000 kilo pisatu zuenez, Debagoieneko errekorra hautsi zuen Mostei baserriko zezenak. /2001-06-08

SAN MARTZIAL ERROMERIARA JOATEKO URBANOEA

↑ Aurten ere, autobus urbanoa jarri zuen Udalak San Martzialera igotzeko. /2001-06-029

ANGIOZARKO FRONTOIAN BERRIZ KONPONKETAK

↓ Duela gutxi konpondu arren Arbiaska frontoiko zorua berriro konpondu behar izan zen. /2001-06-29

AIPAGARRI



AITOR ZABALETA
Auto gidaria

Aitor Zabaletak irabazi zuen Gorlako auto igoeraren IX. ekitaldia. German Hernándezek saio bikaina egin zuen: hirugarren izan zen. /2001-06-15



J. ANGEL MIKEO
Mundukideko idazkaria

Mundukide Fundazioa Mozambiken, Marrupta barrutian, hain justu, gauzatzen ari den proiektuaren hasiera ekitaldian izan zen Jose Angel Mikeo. /2001-06-22



ANGEL RIBERA
Atleta

Euskadiko Atletismoko Txapelketan hirugarren izan zen 100 metroetako proban. Arrasate Atletiko Taldean zebilen orduan Angel Ribera. /2001-06-22

Zuri Beltz margoak

**Barnealde eta kanpoaldean erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak**

943 76 14 60 • 607 447 494 • 943 76 59 59
BERGARA

Urte berri on!



ARISTEGI-TOLA

ITURKINTZA

* Gas naturalezko, propanozko eta gasoleozko kalefakzio instalazioak.

* Bainurako altzarien salmenta eta instalazioa, iturriak eta dekorazio gaiak.


* Era guztietako konponketa lanak.

Bolu 26, BERGARA Tf.: 943 76 54 17

Mila esker

**bezero, kolaboratzaile eta irakurleoi
aurten ere, gudan izandako konfiantzagatik.
Berrigara denon artean egiten dugulako.
Gabon zoriontsuak eta urte berri on guztioi!**

Berrigara




DESA/CRISTAL

AUTOMOBILETARAKO KRISTALERIA

Luna-muntatze berehalakoa: autobus, kamioi, turismo eta abarrentzako.


SOLAR-CHECK LAMINAREN INSTALATZAILE OFIZIALA (IATrako egiaztagiriarekin)



Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia
(Izurako zuzengunean)
Tf. 943 69 16 16
20270 IRURA

Santalaitz 6, 5. pabilioia
(IAT-ITVtik 100 m.ra)
Tf. 943 76 36 09
20570 BERGARA

PARABRISERAKO
KOLPE-KONPONKETA



MATRIKULA
GRABAKETAK



Ariznoa HOTELA

Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin,
gure bezeroek merezi duten
kalitatezko zerbitzua eskainiz.

Telesforo Aranzadi, 3
Tel. 943 761 846 - 943 761 847
Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Eskola Txikien aldeko jaia Angiozarren

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, jende ugari batu zen Angiozarren, Eskola Txikien aldeko festan. Gipuzkoako 27 eskolatako umeek hartu zuten parte. /2001-06-09

► EUSKAL HERRIA

EAJ, EA eta EB, gobernua osatu nahian


Zazpigarren legealdia bereizita hasi zuen Gasteizko Parlamentuak. Batetik, EAJ, EA eta EB Gobernuan, eta bestetik, Batasuna, PP eta PSE-EE oposizioan. /2001-06-09

► MUNDUAN

Blairrek erraz irabazi zituen hauteskundeak

Programa zentrista eta europazaleekin, botoen % 44 jaso zuten laboristek. Parlamentuan gehiengo osoa lortu zuen Blairrek. /2001-06-08

ISTILUAK



Pazko zaharrean istilu larriak gertatu ziren

Barne Sailaren arabera, 50 kaputxadunek hartu zuten parte Pazkoetako jaietan gertatutako istiluetan. Gertatutako istiluek ohiartzun haundia izan zuten estatu mailako komunikabide guztietan. Ezohiko bilkuran, EAJ/EA, PSE-EE eta PPk bat egin zuten alkateak gertaerak gaitzesteko aurkeztutako mozioarekin. EH abstenitu egin zen, kaltetuei elkertasuna adieraziz. /2001-06-08

KULTURA

Josune Fernández eta Alex Torre garaile Dantza Sueltoan

Hirugarren urtez jarraian, hamabost urte azpikoendako Euskadiko XXIV. Dantza Sueltoiko Txapelketa irabazi zuten Josune Fernández eta Alex Torre bergarrek. /2001-06-08

Txapelketako kanporaketetan hogeita bost bikotek hartu zuten parte. /2001-06-08

AISIALDIGUNEAK

Gorlako kantina zaharra bota eta berri ireki zuten

Maiatzaren 22an bota zuten Gorlako kantina zaharra. Aldi berean, kantina berria ireki zuten; bi aldiz lehiaketa publikora atera eta gero hutsik geratu zen arren, azkenean Bergarako bi gazteri esleitu zien Udalak. Haiek arduratzen dira ingurua txukun edukitzeaz. /2001-06-08

ETXERA ITZULI ZEN 21 URTE ETA GERO /2001-06-22



JOSE MARI ETXANIZ
PRESO OHIA

Bergarara bueltatu eta gero bere lekua hartu guran dihardu

Kontsumismoa gehitu den arren, herria ez du horren aldatuta ikusi. Kartzelatik bueltan, poliki-poliki asentatu egin nahi du, bere lekua hartu. /2001-06-22

KIROLA

Kanpoko igerilekuak zabalik udari hasiera emateko

Eibarko Garapen Proiektuak hartu zuen kanpoko igerilekuetako sorosle zerbitzu eta igeriketa eskolen ardura. /2001-01-15

Borja González eta Daniel Jiménez arduratu ziren sorospen lanez. Sauna, masaje eta solariumeko arduraduna, aldiz,

Mariasun Belastegi bergararra izan zen. /2001-01-15

Ekainean eta uztailean egingadako eguraldiak lagunduta, herritar ugari hurreratu ziren kanpoko igerilekuetara. /2001-01-15

Ea datorren urtean giroak laguntzen duen. /2001-01-15



Argazkian, Borja, Daniel eta Mariasun. /2001-01-15



BILTOKI

dekorazioa

ESTILO KLASIKOKO ALTZARIAK
ETA GAZTE ESTILOKOAK.
ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO
SOFAK...
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK
SAN MARTIN PLAZA. Tel.: 943 76 43 51

sukalde eta bainuak

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
GARANTIA ETA ZERBITZU HOBERENA.
SAN PEDRO PLAZA Z/G. Tel.: 943 76 34 00

elektragailuak

MERKATUKO MARKARIK ONENAK
ikus entzunezkoak
Banatzaile ofiziala
SONY  **PHILIPS**
SAMSUNG  **PIONEER**
BARRENKALEA 6 . Tel.: 943 76 25 96

Gabon zorientsuak izan ditzazula opa dizugu eta urte berri on!

UZTAILA



"Europar galdu den arren, Euskal Herrian bizirik dirau bisoi europarrak"

IÑAKI IRIZAR
BIOLOGOA
2001-07-13



"Udan baino, sute arrisku handiena udazken eta udaberrian izaten da"

HIPOLITI POZA
SUHILTZAILEA
2001-07-13



Udalak adierazi zuen ez zuela parte hartuko Goiena egitasmoan

Bi urte zain izan eta gero, Udalak Goiena Komunikabide Zerbitzuetako bazkide ez egitea erabaki zuen. Goienan ez sartzeko arrazoen artean, alkateak adierazi zuen EAJ eta EA Autonomia Erkidegoan telekomunikazioen gainean plan bat egiten ari zirela. Horren ondorioz, Goienak ez zuen Bergarako Udalaren aldetik laguntzarik jaso. /2001-07-27

HILEKOESALDIA

"Abiadura saldu ondoren, segurtasuna saldu nahi digute, abiadura horrekin istripuak hilgarriak dira eta"

JOXE LAZKANO/ IRAKASLEA
2001-07-06

HILEKODATUA

400

UME IBILI ZIREN UDALEKUE TAN

Hiru eta hamalau urte bitarteko 400 umek eman zuten izena Udalekue tan, uztaileko goizak eder- to aprobetxatzeko. /2001-07-06

LAGUNEN OMENALDIA JASO ZUEN 'MOSTU'K

↑ Jose Antonio Kortabarría *Moztu* zenak omenaldi hunkigarri jaso zuen Ipintzan. /2001-07-13

GORA EGIN ZUTEN ZIRKULAZIO ARAU-HAUSTEEK

↓ Auto gidariak egindako zirkulazio arau-hausteeek gora egin zutela eta, araraudi berria egin zuen Udalak. /2001-07-27

AIPAGARRI



ASIER GARITANO
Futbol jokalaria

Denboraldi borobila egin zuen Asier Garitanok Alicante taldean. Igoera faseko golegile nagusia izan zen, eta taldea 2.B mailara igotzen lagundu zuen. /2001-07-06



ELENA CABO
Udaleko langilea

Hogeita hamabi urtean Udaletxean garbitzaile ibili eta gero, erretiratu egin zen Elena Cabo. Udaletxe-ko lankideek bazkari batekin agurtu zuten. /2001-07-20



AGUSTIN TOLEDO
Atleta

Gutxituendako Espainiako Atletismo Txapelketan urrezko domina eskuratu zuen Agustín Toledo atleta bergararrak pisu-jur- tikan. /2001-07-13



Zorionak eta urte berri on

Barrenkale, 29 Bergara

Tel: 943 76 57 25



JOXAN ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Gipuzkoako Batzar Nagusia Arrasaten

Hogeita bi urte eta gero, Gipuzkoako Batzarrak Arrasatera itzuli ziren. Gai bakarra eztabaidatu zuten: sozietateen gaineko zergari aldaketak egitea.
2001-07-06

► EUSKAL HERRIA

Batasuna utzi eta bide berria hasi Aralarrek


Batasuna prozesuan Bateginez-ekoekin zituen desberdintasun ideologiko, estrategiko eta taktikoak zirela-eta, beste bide bati ekitea erabaki zuen Aralarrek.
2001-07-06

► MUNDUAN

Globalizazioaren aurkako laguna hilik

G8k Genevan egin zuen batzarra zela eta protestan zebilen gazte italiarra hil egin zuten, polizien furgonetatik egindako bi tirok buruan jo eta gero.
2001-07-21

HIRGINTZA



Miguel Altuna institutua Mayc ondoko lursailera eramango dute

Udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, 24.160 metro koadro inguru erabiliko ditu Jaur-laritzak Mayc ondoko lursailean Miguel Altuna ikastetxe berria eta babes ofizialeko 35 etxebizitza eraikitzeko. Insitutu berri eta etxebizitzak egiteko lur hauen trukean Miguel Altuna zaharreko eraikuntzaren zati bat emango dio Eusko Jaurlaritzak Udalari. /2001-07-20

KIROLA

Agorrosingo kirolgunearen aurreproiektua eginda


Aurreproiektua Perez de Amegaga eta Muntañola arkitektoak egin ondoren eta herriko kirol taldeen eritziak jasota zenbait aldaketa proposatu zituen Udalak. Proiektua hutsetik hasiko dute 2002an eta bere baitan hartuko ditu, gimnasioak, igerilekuak eta futbol zelaia. /2001-07-13

ELKARTEAK

XXV. urteurrena ospatu zuen Lasai Toki Elkarteak

Mende laurden bete zuen uzta-laren 24an Lasai Toki Elkarteak. Urteurren hura ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituzten bazkideek. Gaur egun, 126 lagun dira Lasai Tokin, eta horietako zortzi emakumeak dira. Urteurrena ospatzeko, afaria egin zuten herriko elkarte guztiekin. /2001-07-06

IRON MAN PROBA EGITEKO GERTU /2001-07-27



JOSEBA ZUZAETA
ANTXIINTXIKIA TALDEKOA

Debagoiengan triatloia bultzatzeko asmotan dabilta

Iaz Iron Man proban parte hartu eta gero, aurten ere, Austriara edo Alemaniara joateko asmoa daukate. Eta ibarrean triatloia bultzatzeko asmoa daukate.

KIROLA

Urteko kirolari onenak saritu zituzten Udalak eta BERRIGARAK

Kirol talde bakoitzak kirolari bana aukeratu eta gero, hauek izan ziren aurten sarituak: Maria Romero, 2. erregionaleko futbol taldea, Mikel Plazaola, Joseba Herran, Irati Arteaga, Zigor Medina, Markel Larrañaga, Aitor Jaso, Markel Cestafe eta Jose Joaquin Gómez. /2001-07-20



Argazkian iazko denboraldiko kirolaririk onenak ikus ditzakegu.



TXIMELETA



Gozokiak eta Prentsa

Gabon gozoak opa dizkizuegu herritar guztioi

Ibargarai 2, Bergara

ABUZZTUA



"Tourrian Jalabertek harritsu nau gehixen, eta dezepzionau, Zubeldiak"

JESUS MARTÍN
DENDARIXA
2001-07-29



"Hezetasuna dela agertzen dira udan onddoak eta papilomak"

ARANTZAZU AZPIAZU
PODOLOGOA
2001-09-07



Lausardi abesbatza Arantzazuko frantziskotarren 500. urtemugan

Donostiako Hamabostaldi Musikaleko ekitaldien barruan, Arantzazuko frantziskotarren 500. urterrena ospatu zuten abuztuaren 17an. Bergarako Orfeoia, Arrasateko Goikobalu abesbatzak, Oñatiko Ganbara abesbatzak eta Bergarako Haur Eskolako abesbatzak hartu zuten parte emanaldian. Jende ugari batu zen Arantzazun egindako ekitaldian. /2001-08-17

HILEKOESALDIA

"Datorren urteko udan jazz eta zine emanaldiekin jarraituko dugu. Egubakoitzetan izango dira"

NERE AMAIA ZABALA / ZINEGOTZIA
2001-09-07

HILEKODATUA

XVI.

FUTBITO TXAPELKETARAKO IZENEMATEA ZABALIK

Jende ugari ibiltzen da Labegaraierako futbito txapelketan. Aurtengoa hamaseigarren edizioa izango da. /2001-08-31

OSINTXUKO JAIK ATZERATUTA

↑ Abuztuan jende gutxi egoten dela-eta, jaiak iraileko lehenengo asteburura aldatzea erabaki zuten. /2001-08-31

TABERNAK ETA DENDAK ITXITA

↓ Jende ugari kexatu zen, herriko denda eta taberna ugari abuztuan ateak itxi zituztela-eta. /2001-08-01

LUR-JAUSIA

Abuztuaren 11n, lur-jausia gertatu zen saihebidetan

Zubiaurre ostean egiten diharduten saihebidetan gertatu zen lur-jausia. Lanez arduratzen den Mariezkurrena enpresako iturrien esanetan, "lurra nahiko txarra da, ez du harri askorik, eta ondorioz, egindako 45 graduko ezpondak ez dio lur-jausiareratsi". Eroritako lurrarekin batera hainbat pinu erori ziren. Hala ere, errepidarako plataforma eginda zegoenez, hara erori ziren lurra eta pinuak. Gauza bera berriro ez gertatzeko neurriak hartu zituzten. /2001-08-11

HIRIGINTZA

Ramon Maria Liliko bide berria ireki zuten oporretan

Abuztuaren 7an ireki zuten Ramon Maria Lili eta Ibargarai lotzeko errepide berria. Hori dela eta, aurrerantzean, autoz Bidegurutzetatik igaroz gero, saihebidetara irteerako, errepide berritik Ibargarai biribilera hartu beharko da, gero, handik saihebidetara jotzeko. Ramon Maria Lilin dagoen orubea aparkaleku gisa aprobetxatzeko, kale hori behetik gora har daiteke, lehen bezala. Bide berria eta Mariaren Lagundia lotuko dituen bidea egiteke dago oraindik. /2001-08-07

HARATEGIAK



Komenio kalea, 2. Bergara. 943 76 10 72

Gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu!

Eta mila esker gudan izan duzuen konfiantzagatik



Kalebarren, 1. Antzuola. 943 76 64 84

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



- Integratzailea • Euskalduna
- Anitza • Doakoa



SAN MARTIN

HAUR HEZKUNTZA (3-6 urte)
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)
Boni Laskurain 25. Tf. 943 76 21 47



IPINTZA

DBH (12-16 urte)
BATXILERGOA (16-18 urte)
Giza eta gizarte Zientziak
Natur eta Osasun Zientziak
Teknologikoa
Boni Laskurain 17-19. Tf. 943 76 31 42 / 20 82

M. ALTUNA

LANBIDE HEZIKETA
Erdi Mailako Zikloak (16-18 urte)
Goi Mialako Zikloak (18 urtetik aurrera)
Mekanika
Elektrizitatea
Administrazioa
Plastikoak eta kautxoak
Ibargarai 1. Tf. 943 76 24 91 / 76 38 40



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA
Bergarako ikastetxe publikoak

IRAILA



"Bergarak ez du azpiegitura aproposik kultura ekitaldietarako"

NERE AMAIA ZABALA
KULTURA ZINEGOTZIA
2001-09-07



"Ez da egia udazken partean ilea gehiago jausten zaigula"

CRISTINA GARIANDIA
DERMATOLOGOA
2001-09-21



Danbor hotsez etorri ziren aurtengoan ere San Martinak

Irailaren 14an hasi ziren aurtengo San Martinak. Aurten Martiriorik izan ez bazen ere, jende askok hartu zuen parte kontzertu, azoka, danborrada, suzko errubera eta dantzaldietan. Umeen danborradaren antolaketa ikastetxeek ere parte hartu zuten. Abuztuko oporretatik bueltan, irailaren 14an San Martinetan giro ona nagusitu zen herriko kaleetan. /2001-09-14

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

15

**"Indartu egin da bilinguismo xe-
bre hau. Erdarara pasatzeko gero
eta aitxakixa txi-
kixaua bihar dogu"**

JUAN MARTIN ELEXPURU / IDAZLEA
2001-09-07

URTE SAN LORENZOAK OSPATZEN EZ ZIRELA

San Lorentzo abuztuaren 10ean izan arren, atzeratu egin zuten irailaren 1era, jaiari jende gehi-
gok parte hartzeko. /2001-09-07

JOLASLEKU IBILTARIA HASI ZUEN JARDUNEK

↑ Ekainean egin bezala, jolasleku ibiltaria antolatu zuen Jardunek bost eta hamar urte arteko umeentzat. /2001-09-21

PARTE HARTZEA BEHERA PINTURA LEHIAKETAN

↓ Beart artisten elkarteak antolatutako lehiaketan, maila altuagoa egon arren, jaitsi egin zen parte hartzea. /2001-09-14

AIPAGARRI



ANDONI ETXEBERRI
Bidaiaria



RICARDO OTAÑO
Marraskilaria



'PITI' UNAMUNO
BKEko presidente ohia

Pasaiatik Galziara-ko espedizioan, Albalola elkarteko zazpi lagunekin, eurek egindako larruzko itsasontzian egin zuten bidaia Andonik. /2001-09-21

Beart artisten elkarteak, Udalak eta Lasai-Tokik egindako omenaldian, Xamatzen Aurrekua eta Alai taldearen abestiak ere jaso zituen. /2001-09-28

Jokalarien primak zirela-eta zuzendari-
tzako hainbat kide-
rekin desadostasunak izan zituen, eta hala, dimisioa aurkeztu zuen Piti Unamunok. /2001-09-28



JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Kintadak
- Bataioak eta jaunartzeak



TABERNA

ANTXONI



AGIRRE HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak
eta Amaia Etxeberria

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai, 9. 1-B
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00



Urte berri on!



AZKARATE AROSZTEGIA

TELLERIA, 19 B-O-2 B-O-3
BERGARA
TEL.: 943 76 47 19

ARETXABAETA
TEL.: 943 77 01 24



Telefonoak: 943 76 47 19 eta 610 88 40 20

ARDATZA *Brikolaketa*

MASTERREKA, 4 BEHEA.
TF.: 943 76 18 93 •
BERGARA



ATEAK, LEIHOAK, , TARIMAK ETA PARKETAK

HORMA ARMAIRUAK

HORMA ARMAIRU IRRISTAGARRIAK
TOLESGARRIAK

BRIKOLAKETA

BERGARA *Kafea-Pentsioa*

EGUNERO

goizeko 7etatik zabalik.

**Gosariak, pintxoak,
bokatak eta meriendak.
Logelak.**



Logelak



Kafetegia

Bidekurutzeta 34, BERGARA. Tf. 943 76 47 23

Ondo pasau Gabonak!



**Euskararentzat bidea ez
da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz
argituko da
noizbait bere
etorkizuna.**

**Hizkuntza dugu Herriak
duen**

**benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna**

Zabalotegi, 13 Bergara

Tel: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

berg.euskudal@euskalnet.net

Bergarako Udal Euskaltegia

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Ikasturte berria Unibertsitatean

Jabier Retegik Mondragon Unibertsitateko ikasturte berria hasi zuen. Urtarrietik aurrera, Iñaxio Oliverik hartuko du errektore kargua. /2001-09-21

► EUSKAL-HERRIA

Elkarri-k Bake Konferentzia aurkeztu

Bake Konferentziaren helburua, gizartean dauden sententzietatik politikoko guztien artean arazoei aurre egiteko ibilbidea adostea dela adierazi zuten. /2001-09-15

► MUNDUAN

Estatu Batuen aurkako eraso larria

Dorre Bikien eta Pentagonoaren aurkako erasoetan 6.000 lagun inguru hil ziren. Aurrerago, Osama Bin Laden-ek bere gain hartu zuen erasoa. /2001-09-15

KIROLAK



Bergara KEko preferente mailako futbol taldearen estreinaldia

Itxaropentsu ekin zioten Juanina Garairen mutilek denboraldiari. Hasieran oso fin ez ibili arren, partiduak jokatu ahala gora egin du taldeak. Hirugarren mailatik jaitsi zen talde bera dute, eta hainbat urtean elkarrekin jokatzen jardun duen taldea denez, igoera jokatzeko faboritoen artean dago. Partidak jokatu hala gora egin du Bergarak. /2001-09-07

ZAHARBERRITZEAK

Trinitateko komentuaren bi armarriak berritzeaz

Gobernu batzordeak Trinitateko komentuaren aurreko horman dauden bi armarriak zaharberritzeko erabakia hartu zuen. Eudald Gillant izen handiko zaharberritzailea arduratu zen lanez. Bi milioi eta erdiko aurrekontua izan zuen armarrien zaharberritzeak. /2001-09-21

EKOLOGIA

Udalak ez du parke eolikorik nahi Irukurutzetan

Irukurutzetatik Karakaterako mendilerroan Elosua-Plentziako Estazio Megalitikoa dagoela-eta, ezetza eman zioten Udaleko alderdi guztiek Jaurlaritzak han aurrez ikusi zuen parke eolikorari. Jaurlaritzak, ordea, Energia Eolikoaren planean kokatua dauka parkea. /2001-09-14

'BANBULO' ANTZEZLANEAN MURGILDUTA /2001-09-28



VIRGINIA IMAZ
PAILAZOA

'Banbulo'n jarraitzeaz gain, lan berriak gertatzen dihardu

Banbulo lanarekin oso lanpetuta dabilen arren, Modelo clown publizitarioa antzezlana euskaratu dute. Martxoan aurkeztuko dute Bergaran.

KALE BILKURA

EHE, Jardun eta AEK-k euskara aldarrikatu zuten irailaren 26an

Europako Hizkuntzen Eguna zela-eta, AEK-k, Jardun-ek eta EHEk, euskararen egoera zein den kontuan hartuta, eguna ospatzeaz gain, aldarrikatzekoa ere bazela salatu nahi izan zuten.

Hiru talde horiek bilkura egin zuten plazan, euskararen egoera salatzeko. /2001-09-28



Hainbat lagun batu zen euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko bilkuran.

Zilarrezko oparietan aukera zabalena. Zatoz, Haraian asmatuko duzu.

- Lege-zilarra
- Harri naturalez egindako eraztunak, lepokoak...
- Kolorezko erretxinan adituak

Haraia

Ainhoa Ibarra

Boni Laskurain 4. Tel: 943 76 74 03.

URRIA




"Hizkuntza akademiarekin titulu ofizialak emango ditugu aurrerantzean"

JUAN JOSE ÁLVAREZ
BERGARAKO UNEDEKO ZUZENDARIA
2001-10-05



"Gizarte indibidualista gara; gazteek eta nagusiek ez dugu parte hartzen"

JAVIER YANGUAS
GARAPENERAKO TALDEKO ZUZENDARIA
2001-10-19



Ondartza baserria birgaitu eta eraberrituko du Diputazioak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Ondartza baserria birgaitu eta eraberritzeko erabakia hartu zuen. Batetik, autobideko tunelen zaintzarako zentroa eta, bestetik, autobidearen inguruko erakustoki egonkorra jarriko dituzte hantxe. Foru Aldundiak bertan egin beharko diren lanak Ur&ma SL enpresari esleitu zizkion. 6.225.000 pezetako aurrekontua izendatu zuten. /2001-10-05

HILEKOESALDIA

"Ea guztion artean euskalduntzearen beharra ikusarazten diegun herriko euskaldun gai guztiei"

KRISTINA MARKINA/ IRAKASLEA
2001-10-19

HILEKODATUA

105

URTE BETE ZITUEN LUISA AGIRREZABALEK

Osasunez ondo dago Bergarako eta Debagoieneko-emakumerik nagusiena. Urriaren 9an bete zituen urteak Luisak. /2001-10-05

SAN JOXEPEK ANTOLATUTAKO HAMABOSTALDIA

↑ San Joxepeko eta Antzuolako erretiratuek hainbat ekitaldi antolatu zituzten urrirako. /2001-10-19

ZABOR UGARI ZURRAN

↓ Antza denez, azken hilabeteotan zaborra lagatzeko ohitura hartu dute zenbait herritarrek. /2001-10-05

AIPAGARRI



IBAN FRANCO
Eibar B taldekoa

Hogeita hiru urteko bergarar honek hiru-garren denboraldia hasi du Eibar B taldean. Taldean jokari garrantzitsua da Iban; iaz, bost gol sartu zituen. /2001-10-11



IÑIGO ZAITEGI
BKEko presidentea

1993 eta 1999. urte artean BKEko presidentea izan eta gero, Piti Unamunoren partez kargua hartu zuen urrian, haren presidenteordea zena eta Iñigo. /2001-10-19



FERMIN HERNÁNDEZ
Herri korrikalaria

Herriko umeak korrikan aritzeko antolatu zen Behobia Txikiaren arduradunetako bat da Fermin. Jende asko batu zuen korrika probak. /2001-10-26



Gabon zorientsuak eta urte berri on guztioi

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00

TABERNA Tel. 943 76 49 33

San Pedro 4, BERGARA

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Zubi berria jarri zuten Elorregin

Elorregiko bidegurutzean sortzen ziren arazoak ekiditeko biribilgunea jartzeko lanen barruan, 22 metroko hormigoizko zubia jarri zuten.

2001-10-05

► EUSKAL HERRIA

Bost euskal mendizale hilik Himalaian

Urriaren 17an, Pumori mendia igotzeko ahaleginetan ari zirela, bost euskal mendizale hil egin ziren, elur-olde batek harrapatu eta gero.

2001-10-17

► MUNDUAN

IRak armak uzteko pausoa egin zuten

Ipar Irlandako auziaren inguruan politikari guztiak oso ezkorak zirenean, pauso garrantzitsua egin zuten IRAk: armak uzteko konpromisoa hartu zuten.

2001-10-24

HONDAREA



Espero zuten ermitaren arrastorik ez zuten aurkitu Osintxun

Osintxun egindako indusketetan ez zuten ermitaren aztarnarik aurkitu. Eliza parean zegoen tailer zaharra bota behar zutela-eta, Aranzadi Zientzia Elkarteari indusketak egitea eskatu zion Udalak, toki hartan ermita bat egon zela uste zuten-eta. Pipa eta zeramika zatiak eta txanpon bat aurkitu zituzten Aranzadikoek egindako indusketetan. /2001-10-19.

AUZOAK

Basalgoko pilotalekua estaltzea erabaki zuten Udalak

Euria egiten zuen bakoitzean Basalgoko pilotalekua guztiz bustita geratzen zela-eta, pilotalekua estaltzeko proiektua idazteko eskatu zion Udalak Ignacio Ibarretxe arkitektoari. Gobernu batzordeak 1.276.000 pezeta aurrez ikusi zituen Basalgoko proiektua idazteko. /2001-10-11

SARIA

Aranzadi ikastola omendu zuten Kilometroak jaietan

Beasainen egindako Kilometroak 2001 jaietan Aranzadi Ikastola omendu zuten. Kilometroak antolatatu izan duten ikastola guztiak omendu zituzten jaiaren 25. urte-mugan.

Datorren urtean, Zumarraga-Urretxuko ikastolak antolatuko du Kilometroak. /2001-10-05

HAMARGARREN ALDIZ EUSKADIKO TXAPELDUN /2001-10-30



AITOR ZABALETA
PILOTUA

Lehia handituko den arren, aurrean jarraitzeko asmoa du

Euskadiko Txapelketa hamargarren aldiz irabazi eta gero, datorren denboraldirako autoa gertatzen dihardu. Ziur fabaritoen artean jarraitzen duela.

KIROLA

Igerileku berrien aurreproiektuaren aurka Igeri Elkartekoak

Bergara Igeri Elkarteko zuzendaritzak salatu egin zuten Udalak kanpoko igerilekuak kentzeko zuten asmoa. Bergaran Gipuzkoako 50 metroko igerileku olinpiar bakarrenetakoa izanik, proiektuan hura kentzeko dagoen asmoa ulertezina dela salatu zuten. /2001-10-05



Igeri Elkartekoak, prentsaurrekoan.



COMERCIAL BRUNET

Urte berri on eta jai zoriontsuak




Robin

YANMAR

Husqvarna

Ozaeta 11, Bergara Tel: 943 76 31 52

AZAROA



"Batzarretan ez dugu inoiz planteatu emakumeak bazkide egiteko aukera"

ESTEBAN GARMENDIA
PERTXA ELKARTEKO PRESIDENTEA
2001-11-16



"Badaude jostailuak euskararen normalizazioan dagoen hutsunea betetzeko"

MARTIN ITURRIGASTILLO
ALDAY TECHNOLOGYS-EKO ZUZENDARIA
2001-11-30



Gaztetxea itxi eta gero, berritu egingo duela adierazi zuen Udalak

Kartzela zaharra egoera kaskarragatik itxi ondoren, kontzertuetarako gune izateko behar diren konponketak egingo dituela adierazi zuen Udalak. Gauzak horrela, duela bi urte Udalak eta Bergarako Gazte Asanbladak adostutako proiektua betetzeko bidean dago. Eraikuntzan egingo diren egokitzapen lanek 80 milioiko aurrekontua izango dute. /2001-11-30

HILEKOESALDIA

"Indar militarra erakutsi behar dute batzuek, mundu osoak haien esanetara jarrai dezan"

JON ALTUNA/ KAZETARIA
2001-11-09

HILEKODATUA

200

MILIOI PEZETA BANATU ZITUEN LOTERIAK BERGARAN

Peñalba liburu dendak saldutako 27.708 zenbakiak jaso zuen saria. Bilete bakoitzari 10 milioi egokitu zitzaizkion. /2001-11-23

EUSKARAZ JOLAS EGITEKO IKASTAROA

↑ Udaleko Euskara zerbitzuek gurasoek seme alabekin euskaraz jolas egiteko ikastaroa jarri zuen abian. /2001-11-23

KULUNKAK HAURRENDAKO: ARRISKUA

↓ Martoko auzoan zeuden kulunkak egoera txarrean egoteak zenbait umek min hartzea eragin zuen. /2001-11-16

AIPAGARRI



JOKIN ETXANIZ
Pilotaria

Iban Otaegi azpeitiarraren aurka 18 eta 22 galdu zuen Jokin Etxaniz pilotari bergararrak. Lau t'erdiko Txapelketako partidua izan zen hura. /2001-11-23



AITOR ZABALETA
Auto gidaria

Hamargarren aldiz Euskadiko Mendi Txapelketa irabazi zuen auto gidari bergararrak. Hiru igoe-ra izan ezik, beste guztiak irabazi zituen. /2001-11-30



JONE TELLERIA
Artista

Mugetan oinarritutako erakusketa egin zuen kultura etxean. 16 margolanek eta argiarekin sortutako lau instalaziok osatu zuten erakusketa. /2001-11-30



BANKINTER

www.ebankinter.com

Gabon zoriontsuak eta urte berri ona opa dizkizuegu bergarar guztioi

Mariaren Lagundia Ikastola

Otik
16 urtera
arteko
heziketa
integratua
eskaintzen
dizugu



Tipi-Tapa hartzaindegia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Goimailako Heziketa Zikloa (gizarte integrazioa)

Espoloia 1. Tf. 943 76 25 40 / 41 • E-mail: marilagikastola@eukalnet.net
Webgunea: www.euskalnet.net/marilagikastola/bergara.html
Tipi-Tapa hartzaindegia: 943 76 01 52



ARANZADI
IKASTOLA

Herri onurako irakaskuntza kooperatiba

Haur hezkuntzatik Batxilergora ikastolan bertan



San Martin Plaza 4

Tel.: 943 76 90 71

Faxa: 943 76 91 77

bergara@ikastola.net





**ALMERA. AUTO BAT EROSI
BEHAR BADUZU, LEHENENGO
HAUXE PROBA EZAZU.**

AGIAN, PENTSATUKO DUZU HEMEN
NAGOELA NISSANEK HEMEN EGOTEKO
ORDAINDU DIDALAKO. EGIA DA.
BAINA EZ NIZUKE EGIA EZ DEN EZER ESANGO.
ALMERA GASOLINA ETA TURBO-DIESEL 2.2
INJEKZIO ZUZENEKO MOTORRAK DITUEN
AUTOA DA. EGONKORTASUN HANDIA
ETA DISEINU EZIN HOBEA. BENETAN,
NISSAN ALMERA AUTO ITZELA DA.

Nissan Almera
2.041.000

pezetatik aurrera
12.266,66 €

5 URTEKO
BERMEA
KM MUGA BARIK



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate

*Salneurri gomendagarria (Banne hartzen ditu: BEZ, matriculazio zerga, garraioa, Nissan Asistentzia sursapen kampania eta bost urteko bermea kilometraje bari-Floten, taxiem, zenbitzu publikoem eta autonomoem ibalditzetarako, zatorz Nissan kontzesionarioa. Prezio ibaliagarriak peminutulan eta Balear Uhartetan eta stock-ean dauden autoendako.

ALBISTEIZANZEN

► DEBAGOIENA

Omenaldia Jose Maria Arizmendiarrietari

Hil zela 25 urte bete zirela eta Kooperatibismoaren Nazioarteko Eguna zela baliatuz, Jose Maria Arizmendiarrietari omendu zuten Donostian.
2001-11-29

► EUSKAL HERRIA

Ikasleak Unibertsitate Lege berriaren aurka

Euskal Unibertsitateetako ikasleak, Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen Unibertsitate Lege berriaren aurka egiteko, kalera irten ziren hiriburuetan.
2001-11-29

► MUNDUAN

Afganistango Gobernua osatzekotan

Talibanak menderatuz zihoazen neurrian, behin-behineko Gobernua osatzeko elkarrizketak hasi zituzten hainbat etniatako buruzagiek Bonnén.
2001-11-28

HIRIGINTZA



Irala kalea urbanizatzeko eta azpian aparkalekua egiteko asmoa

Domingo Irala kalea urbanizatzeko proiektua idatzi eta obra horien zuzendaritza eramateko baldintzak kaleratu zituen Udalak. Idatzi beharreko proiektuak bere baitan hartu zituen Irala urbanizatzea, Barrenkaleko etxe osteak txukuntzea eta Irala azpian aparkalekua eraikitzea. Alderdi guztien oniritzia jaso zuen urbanizazio proiektu hark. /2001-11-30

UNED

Ikasturte berria aurkeztu zuen UNEDek XXV. urtemugan

Ikasturte berezia izango da aurtengoa UNEDekoendako; izan ere, 25. urteurrena beteko dute. Urteurrena ospatzeko, ekitaldi ugari antolatuko dituzte. Ikasturte hasierako ekitaldian lehenengo promozioiko 25 ikasle eta hainbat irakasle omendu zituzten. /2001-11-16

KULTURA

Zabalotegi aretoa ekitaldi txikietarako egokitzeke asmoa

Zabalotegi aretoa eraberritzeko eta itxuratzeko proiektua aurrera doa. Hasierako proiektuari zenbait aldaketa egin eta gero, Tekniber-ekoek egindako proiektua eramango da aurrera. Areato formatu txikiko jardueretarako egokitu dute, 130 lagunendako lekua izango du. /2001-11-30

'HORRA MARI' IPUIN MUSIKALA AURKEZTU BERGARAN /2001-11-30



DAVID AZURTZA
ORFEOIKO ZUZENDARIA

Datorren urtean CD bat kaleratzeko asmoa daukate

Horra Mari gabon ipuin musikatua Bergaran aurkeztuta, datorren urtean, Arantzazun 15. musikaldian egindako grabaketak kaleratuko dituzte Lausardikoek.

KIROLAK

Bost bergarar Aloña Mendiko koloreak defendatzen

Azaroaren 24an, Bergara eta Aloña Mendi taldeen arteko derbya izan zen Agorrosinen. Etxekoek 1 eta 0 irabazi zuten partida.

Partiduak garrantzi berezia zuen Aloña Mendin jokatzeko duten bost bergarrendako. Gotzon Urtzelai, Ina Dovao, Unai

Arana, Txonan Gallastegi eta Iñaki Mujika dira Aloña Mendiko bergararrak.

Gorka Zelaia entrenatzaile oñatiarra izango dute nagusi, iaz bezala, aurtengo denboraldian ere, oñatiarren aulkian jarraituko du-eta. /2001-11-23



Aloña Mendiko bergararrak.

GISASOLA

"Erratzu"

BURDINAKI DENDA

*Lehen pezeta, orain euroa,
baina Gisasola betikoa*

San Pedro 8

Tel.: 943 76 27 70

BERGARA

ABENDUA



"Gabonetan ere neurritz kontsumitu behar dela eskatzen dugu"

JON ARIÑO
EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA
2001-12-14



"Etixerik gabeko guztiak helmuga berean elkartzen dira: kale gorrian"

XABIER AZKOITIA
SANTA MARINAKO PARROKOA
2001-12-14



Goienaren eta Udalaren arteko hitzarmena onartu zuen udalbatzak

Abenduaren 17an egindako osoko bilkuran onartu zuten Goienarekin hitzarmena egitea. 2002. urterako izango da eta bi aldeen arteko lankidetzaz zehazten da hitzarmen horretan; Goiena Telebistarekin, BERRIGARAKO edizioarekin eta *Goienkariarekin* aurrera egiteko lankidetzaz, hain justu. Gauzak horrela, Udalak 1.664 pezetako laguntza emango dio Goienari biztanleko. /2001-12-21

HILEKOESALDIA

"Eguneroko bizi-moduan guztiz mugatzen zaitu esklerosi anitzak; lanean, familiarian..."

LIERNI GALLASTEGI / ESKLEROSIA DU
2001-12-14

HILEKODATUA

-7

ABENDUAREN 15EKO TEMPERATURA

Azken urteetako temperaturarik hotzena izan dugu, Narbaiza Boluko Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera. /2001-12-21

YOGA IKASTAROA

↑ Udaleko Ongizate Zerbitzuak yoga ikastaroak antolatu ditu nahi duen guztiarendako. /2001-12-05

LAN-ISTRIPUA SAIHESBIDEKO LANETAN

↓ Langile bat hil zen saihesbideko lanetan. Tamalez, gero eta sarriago gertatzen dira istripuok. /2001-12-05

AIPAGARRI



ANE MIREN FERNÁNDEZ
Gimnasta

Urrezko domina eskuratu zuen Espainiako Txapelketan, senior mailako sokariketan. Eibarko Ipurua taldean ari da gimnasta bergararra. /2001-12-14




JUANJO NOGUEIRAS
Argazkilaria

Argazki naturalisten Gironako lehiaketan diploma bat jaso zuen Juanjok, *Comen todos menos yo* izeneko argazkiarekin finalera iristeagatik, hain justu. /2001-12-21



IKER MURUAMENDIARAZ
Pilotaria

Bigarren mailako lau terdiko txapelketan finalerdietara iritsi zen. Finalera ez zuen iristerik izan, Medina mexikarra nagusitu zitzaion-eta. /2001-12-21



Ur-bide

ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

Urte berri on!



KONDE

PANADEROKUA

Burdiñate 1. 943 76 02 57
Toki Eder plaza 3. 943 76 14 87

ALBISTE IZANZEN

► DEBAGOIENA

Elorregiko biribila inauguratuta

Joan den abenduaren 14an inauguratu zuten Elorregi auzoko biribila. Hantxe izan zen, besteak beste, Antton Jaime Gipuzkoako Errepedeetako diputatua. /2001-12-14

► EUSKAL HERRIA

EAEko aurrekontuak eztabaidagai

Gobernu eta oposizioko alderdiek tirabirak izan zituzten aurrekontuak zirela-eta. Hiru aldiz bertan behera laga zen plenoa, quorumik lortu ez zela-eta. /2001-12-14

► MUNDUAN

Ekialde Hurbilean borrokaldi larriak

Abenduaren 1ean, hiru atentatu suizida egin zituzten Jerusalem. Horren ondotik, Gaza eta Zisjordania bonbardatu zituen Israelak. /2001-12-02

LANA



Langabeendako ikastaroa

Hamabi langabek hasi zuten, joan den abenduaren 10ean, txirbil harrotze bidezko mekanizatu ikastaroa. Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak eta Miguel Altuna institutuak lankidetzan antolatu dute mekanizatu ikastaro hori. Ikastaroaren helburua da langabezian daudenei lan-munduan sartzeko aukera eskaintzea, ikasturtea amaitutakoan inguruko lantegietan lan egiteko aukera eskainita. Ikastaroa txirbil harrotze bidezko mekanizatuari buruzkoa izateko arrazoia da "Debagoieneko lan-merkatuak duen eskari handiena dela, eta guk pertsona kualifikatuak eskainiko dizkiegu", Pello Arrondo Miguel Altuna institutuko ikasketa buruaren esanetan. /2001-12-05

PREBENTZIOA

Kiroldegian eta igerilekuan legionella prebenitzeko azterketa

Azterketaren helburua izan da legionellarekiko foku kritikoak zein izan daitezkeen antzeman, eta beharrezko liratekeen neurriak hartzea. Prebentzioa izan da azterketaren azken helburua. Ez da legionella antzeman dutelako izan, prebentzio neurria baizik. /2001-12-14

JOSTAILUAK

Jostailuen funtzioa aztertze erakusketa egin zuten

Abenduaren 15ean, 16an eta 17an egin zuten *Jolasean bizitzen ikasi* erakusketa, Udaleko Ongizate Sailak antolatuta. Jostailuak izan ziren erakusketaren oinarria, eta jostailu bakoitzak betetzen dituen funtzioak aztertze aukera ere eman zuten erakusketa hark. /2001-12-14

KIROLGUNEAREN PROIEKTUA

Kirolgune berria egiteko proiektua esleitu zuen Udalak

Kirolgune berriaren proiektua idazteko lana Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntañola arkitektoei esleitzea onartu zuen Udalak abenduaren 17ko osoko bilkuran. Horrela, arkitekto horien eskuetan geratu ziren proiektua idazteko ardura eta lanen zuzendaritza. Apirilaren

2rako amaituta izango dute proiektua. Osoko bilkuran hartu zuten erabakiak 1.100 milioi pezetako exekuzio materialeko aurrekontua du. Baina horri lanen zuzendaritza eta hainbat zerga gehituz, guztira, 1.500 bat milioi pezetakoa izango da aurrekontua. /2001-12-21

FUTBOLA

Preferenteko taldea 5-2 nagusitu zitzaion Aretxabaletari

Abenduaren 1ean denboraldiko emaitzarik onena lortu zuten mahoneroek, UDA taldearen aurka. Aretxabaletarrak liderrak izan dira hainbat jardunalditan. Partidu ona jokatu zuten bergarrek, bigarren zatia, batez ere, orduan egin zituzten-eta azken hiru golak. /2001-12-05

GABONAK


Ohiko Gabonetako kontzertua egin zuten abenduaren 22an

Gabonen atarian ohi bezala, kontzertua eskaini zuten herriko musika taldeek frontoian. Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak parte hartu zuten; guztira, 120 bat instrumentista eta 100 bat abeslari. /2001-12-21


SASKIBALOIA

Saskibaloiko senior taldea igoera faserako sailkatu da

Gipuzkoako lehen mailara igozteko fasea jokatu du senior taldeak, urtarriletik aurrera. Abenduaren 1ean jokatu zuten ligako azken partidua, eta 119-51 irabazi zion Irungo taldeari. Ligako sei partiduetatik bost irabazi ditu Bergarako taldeak, eta bakararra galdu du. /2001-12-05

 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz

 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Ondo bukatu eta hobeto hasi!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA

URTE BERRIRAKO EGITASMOAK

Hastear gauden 2002 urteak zer ekarriko ote digu? Galdera zaila da erantzuten. Hala ere, badira herrian hainbat asmo edo proiektu aurten edo lehenagotik abian daudenak. Datorren urtean izango duten egikaritzea

jakinekoa da, iragarrita dago, aierutan hasteko inongo beharrik gabe. Horietako bost proiektu aukeratu ditugu guk hemen. Herriarendako nolabaiteko garrantzia duten bost proiektu. Kirolgune berriaren proiektua,

kartzela zaharra, Eibar-Gasteiz autobidea, Zabalotegiko ekitaldi aretoa eta Arrizuriko jauregia, hain zuzen ere. Proiektu horien gainean hara zer egiteko asmoa dagoen datorren urtean.



Gaztetxearen eta Jardunen egoitzak

Ika-mika ugari sortu du kartzela zaharrak. Badirudi, baina, konponbidea aurkitu diotela. Gaztetxeak kartzelariaren etxea egoitza gisa eta kartzela zaharra ekitaldietarako erabili ahal izango ditu. Jardunendako, berriz, kultura etxea egokituko dute, eta beharrezkoa balitz, Santa Anan bertan eraikin bat jaso Jardunen ekintzetarako. 2002an idatzita egongo dira bata zein bestearen proiektuak. Obretako gastuak ere 2002ko aurrekontuan jasoko dira. /M.B.



Eibar-Gasteiz autobidea eta ekialdeko saihsbidea

Eibar-Gasteiz autobideari dagokionez, Bergara eta Eibar lotuko dituen errepide zatia datorren urteko irailerako irekiko dute Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailaren esanetan. Horrez gain, Bergara eta Elorregi lotuko dituen zatiko obrek aurrera jarraituko dute datorren urtean, eta 2004ko maiatzerako bukatuko ei dituzte. Elorregi eta Arrasate arteko zatiaren kasuan, urte bereko abuzturako.


Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatuak saihsbideko lanetara egindako bisitaldian esan zuenez, ekialdeko saihsbideko lanak ere datorren urtean bukatuko ei dituzte, irailerako, hain zuzen. /M.B.



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Etxagibel notarioa 1. 20500 ARRASATE
Tf. 943 71 24 25. Faxe: 943 71 22 98



Agorrosingo kirolgune berria datorren urtean abian

Datorren urte bukaeran, Agorrosingo kirolgune berria eraikitzeari ekingo dio Udalak. Alvaro Pérez de Amezaga eta Jorge Muntañola arkitektoen proiektua apirilerako amaituta egongo da. Ondoren, udalbatzak oniritzia eman beharko dio. Obra zuzendaritzarako aurrekontua onartu zituen Udalbatzak abenduaren 13an, EA-EAren aldeko botoekin eta Batasuna eta PSE-EEren abstentzioarekin. Proiektuaren arabera, oraingo instalazioak bota eta hiru igerileku egingo dituzte: estalitako igerileku handia (25x25 metro), txikia umeendako (estalia baita ere) eta aisialdirako beste bat (biribila eta udan estalki bakoa). Herriko hainbat kirol taldek kontrako iritzia azaldu dute. Proiektuak 1.500 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango du. /EDU MENDIBIL



Arrizuriagan liburutegia jartzeko aukera

Ertzaintzak Arrizuriagako etxea utzi zuen ekainean, eta Udalak udal ekipamendutarako erosi zuen eraikina. Eusko Jaur-laritzarekin egindako akordioari esker, 65 milioi pezeta ingururen truke eskuratu zuen Udalak Ertzaintzako komisaria ohia. Orain, Arrizuriaga etxeari zein erabilera eman aztertzen ari dira, eta hantxe liburutegia kokatzeko aukera darabilte udal teknikariek. Aditu batek azterketa teknikoa egingo du. Bestalde, parke publikoa zabalduko dute Arrizurin. /E.M.



Zabalotegiko aretoa emanaldi txikietarako egokitzeko proiektua

Zabalotegin emanaldi txikiak antolatu ahal izateko, aretoa eraberritzeko asmoa du Udaleko Kultura Sailak. Tekniber enpresak landu du proiektua dagoeneko, eta egokitze obraren aurrekontua 30 milioi pezetakoa da. Proiektuaren arabera, Zabalotegiko aretoak behe solairua eta lehenengo solairua izaten jarraituko du. Guztira, 130 lagunendako tokia egongo da. Kamerinoak, dutxak, komunak, leihatila eta biltegia ere izango ditu. Lehen aipatutako kopuru horri ekipamendu gastuak (butakak, eszenatokia, argiztapena, soinu ekipoa, eta abar) gehitu behar zaizkio. Erabilera dagokionez, berriz, formatu txiki-ko ekitaldietarako erabiliko da. Besteak beste, antzerki lanak, kontzertuak, bertso jaialdiak eta beste hainbat ikuskizun antolatuko dira. Udaleko Kultura Sailaren asmoa obraren aurrekontua 2002ko aurrekontuetan jasotzea da. Hala ere, ez dute zehaztu obrak noiz hasiko dituzten. Gaur egun, Bergarako Orfeoak, Orfeoi Gazteak eta Aritzeta abesbatzak entseguetarako erabiltzen dute Zabalotegiko aretoa. /E.M.



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

AGENTEA



**IRAEGI
ASEGURUAK**

*Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
- Faxes: 943 76 41 54*

*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00*

BERGARA

Peña Kikio ikastolaren
eta mirabeen alde

Astelehenean, abenduaren 24an, herriko talde ugari irtengo dira kalera kantuan egitera. Gabon kantuan izaten dira egun horretako protagonista nagusiak. Alboko erretratuá 1972. urte ingurukoa da eta zera irakur daiteke atzéko pankartan: *Peña Kikio pro ikastola y Siervas de Maria.*

Hauek dira argazkikoak. Zúfik: Jesus Mari Larrañaga, Mari Karmen Arizmendi, Ignacio Garitano, Laura, Munarriz, Pedro Garitano, Juan Mari Zabaleta, Felix Altuna (atzean), Joaquin Redondo, Luis Mari Larraña-

ga, Mari Karmen Nieto, Jose Mari Igartua, Cecilio Moreno, Sabin Gallastegi, Agustin Albizu, Antonio Zangitu, Jesus Mari Larrañaga eta Javier Gantxegi.

Makurtuta: Begoña Marauri, Anton Barrutia, Elisabeth Beistegi, Luis Untzuruntzaga, Jesus Mari Retegi, Josune Sagastume, Lurdes Urrutia, Karmentxu Otamendi, Maritxu Muruamendiaraz, Panti Oregi, Miren Romaratezabala, Pablo Gallastegi, Juan Mari Sotil eta Aitor Gallastegi.

Argazkia: BUA (R. Larrañaga fondoa).



ANTZUOLA



Antzuolako Zalaparta koadrila

Garai baten, koadrilen arteko Gabon kantu lehiaketa egiten zen Antzuolan. 1960ko hamarkadaren amaieran, hiru bat urtean ospatu zen lehiaketa hori Antzuolako eskolan. Koadrilak aste batzuk lehenago hasten ziren lehiaketarako entseatzten, eta lagun talde batek baino gehiagok maila ona azaltzen zuen kantuan. 1967ko urteko ekitaldian

argazkian agertzen den Zalaparta koadrilak irabazi zuen lehen saria.

Hauek agertzen dira argazkian, dotore-dotore, ezkerretik eskumara: Xalbador Olabarria, Jose Mari Jauregi, Tomas Larrea, Koldo Madariaga, Ascensio Azkarate eta Jose Lizarralde.

Argazkia: Xalbador Olabarria

ELGETA



Jaiotza biziduna Elgetan

Goiko erretratuá duela 35 bat urtekoa da. Sasoi hartan, Gabonetan, jaiotza biziduna egiten zuten Elgetako parrokan. Azken urteotan ere neska-mutikoez jaiotza egin izan dute herriko plazan, aspaldiko ohiturari eutsiz. 1965. urtearen inguruko argazkian, hor dira gaztetxoak San Jose, Maria, Jesus umetxoá, aingeruak eta artzainarena

egiten. Erretratuen agertzen direnek zortzi bat urte izango zituzten.

Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara: Iñaki Gorosabel, Juan Mari Arantzabal, Mari Jose Ojanguren, Ana Mari Gallastegi, Mari Karmen Igartua, Sebastian Arantzeta eta Iñaki Izagirre.

Argazkia: Juakin Gastesi




zumelaga
JATETXEA

*Jai zoriontsuak izan
ditzazuela denok!*

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

59 urte zuen zerbitzura!



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Gugan konfiantza izan duzen guztioi, zorionak eta urte berri on!

San Juan, 1 A • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



Ez galdu aukera handi hau

HIL BUKAERA ARTE BAKARRIK

Opel Astra 1.760.000 pezetatik bakarrik hasita.*



EKIPAMENDUA

- Motorra 1.6 84 ZP.
- ABS balaztatze sistema.
- Aurreko eta alboetako aire-poltsak.
- Aurrealdeko buru-euskarri aktiboak.
- Pedal errettraktilak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Bolantea altueran eta sakoneran erregulagarria.
- Lapurreten kontrako itxitura elektronikoa.
- Korrosioa galvanizatua. 12 urteko bermea korrosioagatik zulaketa gertatzen den kasuetan.

Eta diesela DTi 16V 2.046.000 pezetatik hasita.*

Opel Vectra 2.300.000 pezetatik bakarrik hasita.*

EKIPAMENDUA

- Motorra 1.6 16v 100 ZP.
- ABS balaztatze sistema.
- Aurreko eta alboetako aire-poltsak.
- Aurrealdeko buru-euskarri aktiboak.
- Goi-fidelitateko audio katea.
- Aurrealdeko kristal-igogailu elektrikoak.
- Kanpoko atzera-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Bolantea altueran erregulagarria.
- Lapurreten kontrako itxitura elektronikoa.
- Korrosioa galvanizatua. 10 urteko bermea korrosioagatik zulaketa gertatzen den kasuetan.
- Aire girotua.

Eta diesela 2.0 DTi 16V 2.675.000 pezetatik hasita.*



www.opel.es OPEL CREDIT 123 1, 2, 3 aukerak: Beti auto berria izateko modurik errazena.

*10.577,81€ Astra Club 3 ate 1.6 Bv 84zp. 12.296,71€ Astra 3 ate 1.7 DTi 75zp. 13.823,28€ Vectra Comfort 1.6 16v 100zp. 16.077,07€ Vectra Comfort 2.0 DTi 16v 100zp. Fabrikatzaileak gomendatutako saineumiak Penintsulan eta Batear Uharteetan. Barne hartzen du: garrarioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen deskontua eta preber plana berundun gasolinazko autoetan (gasolinazko motorretan) edo preber plana dieselezko motorretan. Baliozko eskaintza hil bukaera arte. Matrikulazio datuak DGTr emanak. (2001eko urtarril-iraila).



TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA
Zerbitzu Ofiziala
TAKOLO AUTOAK
Araba Ertobidea. Tfnoak. 943 77 30 10. ARRASATE



Orain, European ere, Bezero desberdinentzat Aukera desberdinak.

Orain, Zure Europako bezeroei egindako bidalketen baldintzak erabaki ditzazkezu. EUROPREMIUM zerbitzuarekin, behar dituzun opzioak aukeratu: Interneten bitartez jarraipena egitea, Arrisku orotarako aseguruia, mugako kudeaketa, jaso izanaren agiria.....Horrela da Euro Express-en paketeria zerbitzua, Guipuzcoana Euro Express eta beste sektoreko enpresa europear liderrak elkartzen dituen paketeria sarea 20 herrialde baina gehiagotan. Galdetu eta ikus ezazu: zure enpresarako bezero bakoitza berezia bada, Euro Express-entzat ere.

943 763 642

Bergaran, San Juan Auzoan




www.guipuzcoana.com

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 28a / 95. zenbakia



2001 urteari errepasoa



**Doitasunezko
trokelak**
TROKELAY, S.A.

Zerbitzuak
ELAY, S.L.

ELAY Taldea

Ebaketa zehatza
ELAY INDUSTRIAL, S.A.
CELAY, S.A. C.V.

**Gainmoldaketak
eta tratamenduak**
SEYTRA, S.A.
CELAY, S.A. C.V.

URTAR. OTSAILA



"Esker eta hondra gutxi jaso dabe andra askok. Gure amek sekulako meritua dauke, ez zeuken eta oin beste laguntza"

JONE LARRAÑAGA
UDALEKO LANGILEA
2001-01-26

PROIEKTUAK

Igerileku estali gabeak egitea erabaki zuten osoko bilkuran

Urtarrilaren 11n egindako osoko bilkuran, igerilekuen proiektua Luis Mari Zulaika, Donostiako arkitektuari esleitzea erabaki zuten Udalak.

Olaran etxearen atzeko aldea aukeratu zuten Udalak, estali gabeko igerilekuak egiteko.

3.944.000 pezeta bideratu zituzten igerilekuen proiektua aurre-

ra eramateko. Luis Mari Zulaikak esan zigunez, igerilekuak kokatuko diren inguruaren arabera-ko instalazioak egingo dituzte.

Momentu honetan, Udalari aurkeztutako proiektuari azken aldaketak egiten ari dira, alderdi guztien oniritzia duen egitasmoa aurrera eramateko.
/2001-01-19



"El Salvadorrera ez da iristen, ez gobernuaren, ez GKE handien laguntza"

MIKEL ANDUEZA
OSCAR ROMERO ERAKUNDEKOA
2001-02-02



"Dantzara kuadrillan urtetzen giñan gu karnabaletan"

SIMON ARTOZABAL
ELIZAKO ORGANOTZAILE OHIA
2001-02-16

KARNABALAK

Azken urteetan indarra hartzen ari dira Inauteriak

Duela zortzi bat urte hasi ziren, urteetan ahaztuta egon ziren ohiturak berreskuratzen. Domekan, sorgin dantza eta Iribaseko dantza egin zituzten dantzariak.

Herrian zehar egin zuten kalejiran, hartza, tximua eta hezlea ere ibili ziren. Saio horretan, dantza taldeko haurrak mozarrotu-

ta atera ziren.

Egubakoitzean Pausokako gurasoek txokolatea eta torradak banatu zituzten.

Eguenetik egubakoitzera jende pila ibili zen mozarrotuta Antzuolako kaleetan. Denetik ikusi genuen: punkiak, muntroak..., etabar. /2001-02-16



Era guztietako mozarroak ikusi genituen herriko kaleetan.

KIROLA

Pilotan ikasteko eskolak hasi zituzten

Felix Agirre, Jose Mari Mendizabal eta Juan Tomas Erostegi arduratu ziren otsailean pilota eskolak emateaz.

25 eta 30 neska-mutiko artean batzen ziren astean birritan pilotan egiten ikasteko asmoz. /2001-02-02

JAIA

Antzuolarron Independentzia egun jendetsua

Azken urteetan bezala, Antzuolarron Independentziaren Eguna ospatu genuen urtarrilaren erdialdera. Eguerdiko herri-poteoa eta gero, 180 lagun batu ziren frontoian, patatak errioxar eran bazkaltzera.

Giro paregabea izan zen egun osoan. /2001-01-19



1a 200 lagun batu ziren bazkarian.

GIZARTEA

Elkartasunerako dirua batu zuten ANELKARrekoek

ANELKAR Gobernu Kanpoko Erakundeak eta Antzuolako Abesbatzakoak, El Salvadorren lurrikarak eragindako kalteak konpontzeko dirua batzen aritu ziren Santa Ageda kantuan. Guztira 140.000 pezeta lortu zituzten. /2001-02-16

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Juan Cruz
ARGAZKIAK



Urte
berri
on
denoi!

Herriko plaza 4. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Ainhoa

drogeria

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON

Kalebarren 13, ANTZUOLA



**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zorionak antzuolarrok!

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

MARTXOA



"Gure zeregin bakarra patio orduetan egiten dugun kirola da"

JOSE LUIS EROSTEGI "ELTZIKORTA"
EUSKAL PRESOA
2001-03-16



"Herriko talde eta elkarteekin harreman onak sendotuko ditugu"

AINZANE IRIZAR
KONTUOLAKO BERRI-EMAILEA
2001-03-30

HIRIGINTZA

Herri kanpotik doan errepidea hobetzea eskatu zuten

Martxoaren 23an, jende dezente elkartu zen DYA parean, herri kanpotik doan errepidea hobetzea eskatzeko. Antzuolako Udalak deitu zuen bilkurara, eta 150 lagun inguru batu ziren bertan.

Udal ordezkariak adierazi zigutenez, errepidean hobekuntzak egitea Foru Aldundiko Erre-

pide Departamentuari zegokion. Beasain-Durango korridorea egitea arazoa hobetzeko bidea izan liteke Udalaren ustetan. Egiteko lanen artean, Diputazioak atzeratu egin zituen Bergara eta Zumarraga artean egin beharrekoak, arazoari ez ziotelarik irtenbiderik eman. /2001-03-30



150 lagun inguru batu ziren Udalak deitutako bilkuran.

GOIENA

Goienak Kontuola kudeatzeko ardura hartu zuen

Idolaz euskara elkarteak, bai-larako beste euskara elkarteekin batera, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren parte hartzea erabaki zuen.

Hitzarmena eta gero Goienak hartu zuen Kontuola kudeatzeko ardura. /2001-03-16

SARITUA

Elay, Gipuzkoako esportatzaile nagusia

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak, Elay Taldea saritu zuen, Gipuzkoako esportatzaile nagusia izatearren. 2000.ean izan zituen irabazietatik %60 esportazioetatik jaso zuen Elayk. Santi Zabaletak jaso zuen taldeari eman zioten saria. /2001-03-30

APIRILA



"Antolatzailliek megafonixatik esan zozkuen Espainiako txapelketara juteko erreserban gendela"

AITOR LARREA
TRIATLOI TALDEKO KIDEA
2001-04-20

GAZTEAK

18 neska-mutil Gaztetxeko arduradun urtebetez

Aurtengo kintoez hartu zuten Gazte lokala aurrera eramateraren ardura.

Josu Agirre, Mikel Bargiela, Larraitz Berraondo, Xabi Biteri, Jessica Escobar, Mikel Fortuna, Gorka Iglesias, Ugaitz Iturbe, Jon Kortabarria, Erik Lizarralde, David Martin, Asier Odriozola,

Idurre Orobengoa, Jon Pagaldai, Sergio Sanchez, Iban Unanue, Gotzon Zabalo eta Josu Zubikarai dira Gaztetxeko arduradunak.

Momentu honetan, eraikinean egiten ari diren lanak direla eta, lokalik gabe daude herriko gazteak. /2001-04-20



Hiru neskak eta hamabost mutilek dute Gaztetxearen ardura.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131

BERGARA 609 150 164



**DESKARGA
AUTOAK**

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatutako

Zorionak!

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Jose Luis
Zabalo



Ondo pasau
Gabonak!

IGELTSEROTZA

Birgaitzeak • Fatxadak • Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89. Faxa: 943 76 60 14.

MAIATZA

EKAINA



"Goizian mezia egoten zan San Isidrotan, eta gero, bertsolarixak; ferixia, berriz atsaldian izaten zan"

ISIDRO ZABALETA
UGARTETORRE BASERRIKOA
2001-05-04



"Ume nintzela, izugarri gustatzen zitzaidan udalekuetara joatea"

LEIRE LIZARRALDE
UDALEKUETAKO KOORDINATZAILEA
2001-06-08



"Helburua, ofiziala izango den selekzio euskalduna lortzea da"

GABRIEL FALERO
ESAIT-EKO KIDEA
2001-06-08

POLITIKA

Antzuolan ere, EAJ-EA koalizioa garaile

Antzuolan ere EAJ eta EA alderdiek osatutako koalizioak jaso zituen boto gehien. Duela hiru urteko Legebiltzarreko hauteskundeekin alderatuz, EAJ-EAk 213 boto gehiago jaso zituen. EHK aldiz 144 boto gutxiago izan zituen. EAEn gertatu zenaren antzerako emaitzak ikusi genituen Antzuolako haustestontzietan. /2001-5-14

EMAITZAK		
EAJ-EA	713	% 50,8
EH	388	% 27,6
PSE-EE	142	% 10,1
PP	99	% 7
IU-EB	46	% 3,2
Abstentzioa	211	% 15

KIROLAK

Aritz Berraondo eskuz banakako bigarren mailako txapeldun

Eskuz banakako bigarren mailako txapela jantzita bueltatu zen Antzuolara Aritz Berraondo pilotaria.

Finalean 22 eta 16 nagusitu zitzaion Xalari. Jende mordoa joan zen Donostiara Aritz animatzera, eta gero guztiek ospatu zuten garaipena. /2001-05-18



Aritz, garaipena ospatzen.

KIROLA

Euskal selekzioa izan zuten hizpide euskal kirolariek

Euskal selekzioaren gaineko mahai ingurua antolatu zuten Esait-ekoek. Bertan, Athleticceko Joseba Etxeberria, Realeko Aitor Lopez Rekarte eta Igor Gabilondo, Aritz Berraondo pilotaria eta Esait-eko Gabriel Falero izan ziren. Moderatzaille lanetan GoiTBko Anartz Agirre kazeta-

ria aritu zen.

Kirolariak ikustera eta euskal selekzioaren inguruan izan zen eztabaidara zale ugari inguratu ziren.

Mahai ingurua bukatzean, hurrei autografoak sinatzen aritu ziren bertara etorri ziren kirolari denak. /2001-06-08



Mahai inguruan euskal selekzioaren alde agertu ziren kirolariak.

DANTZA

Haur Dantzarien Eguna herriko kaleetan

Antzuolan bi urtetik behin antolatzen dute Oinarin dantza taldekoek Haur Dantzarien Eguna.

Oñati, Arrasate, Soraluze, Aretxabaleta, Bergara eta Antzuolako 250 bat umek hartu zuten parte aurtengo dantza erakustaldian. /2001-06-08

HIRIGINTZA

Gizarte Etxearen proiektua ikusteko aukera izan zen

Gizarte Etxearen behin betiko proiektua onartu eta esleitu bitartean, herritarrei proiektuaren nondik norakoak jakinarazteko erakusketa antolatu zuten. Erretiratuen egoitza, liburutegia, eta erabilera anitzeko gela izango dira eraikinean. /2001-06-22



HIRU

AROSZTEGIA

Antigua auzoa 8. 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59

ATEAK
•
LEHIOAK
•
ZORUAK
•
HORMA ARMAIRUAK

Ondo pasau Gabonak!

UZTAILA



"Etzaniz kalean ikusi nahi nuen kartzelatu aurretik"

KARMEN IRIZAR
PRESOA
2001-07-06



"Besteek bidaltzen ez nauten bitartean, ni izango naiz mairua"

SALBADOR PEÑA
ALARDEKO MAIRUA
2001-07-06

JAIK

Euria egin zuen arren, jaietan jai egin genuen antzuolarrok

Adituek eguraldi txarra iragarri zuten astebururako eta hala egin zuten, sekulako euri jasa. Zapatuko Alardea bertan behera uztekoan ere izan ziren; jai batzordekoek eta Alardeko ordezkariak bildu eta aurrera egin behar zute-la erabaki zuten, ordea.

Ikurrin dantzarekin hasi

ziren jaietan, umeentzat denetarikoko ekitaldiak izan ziren. Urtero bezala, Egaña eta Lizaso entzuztera jende ugari batu zen. Aurten GOITBkoak ere izan ziren jaien berri ematen.

Jaiak utzitako *bixamona* uxatzeko, lanak izan zituzten batzuek hurrengo egunetan. /2001-07-20



Herri bazkarian bete egin zen elizpea.

HIRIGINTZA

Arau subsidiarioak berritzeko lehen pausoak emanda

Osoko bilkuran, behin-behineko arau subsidiarioen dokumentu berria onartu zuten Udalak.

Arau berriei buruzko xehetasunak azaltzeko, hitzaldia egin zuen proiektua egin zuen Jose Miguel Toledok. /2001-07-20

KIROLA

Aintzane Narbaezek urrezko domina gimnasia

Gimnasta antzuolarrak urrezko domina lortu zuen Valladoliden jokaturako Espainiako Txapelketan. Urrezko domina, sokarekin lortu zuen, Eibarko Ipurua taldearekin. Gogorra izan arren, gustura dihardu gimnasia Aintzane. /2001-07-20

ABUZT.



"Negu kaskarra egin eta gero, oso pozik nago udako torneoetan lortutako emaitzekin, ea horrela jarraitzen dugun"

AITOR ELKORO
PILOTARIA
2001-08-29

TURISMOA

Mankomunitateak Antzuolako ibilbideekin liburuska kaleratu

Bailarako herri bakoitzak eskaintzen duen ibilbide interesgarriekin liburuxkak argitaratu zituen Mankomunitateak.

Antzuolakoan Uzarraga, Galartza, Lizarraga eta Irimoi Goiena auzoetako ibilbideak argitaratu zituzten.

Herriko eraikuntza aipaga-

rrienak ere kontutan hartu zituzten liburuxkan. Udaletxea, Antiguako errota eta ermita eta Uzarragako San Juan Bautista eliza aipatzen ziren herriko eraikuntza garrantzitsuenen artean. Antzuola bisitatzera etorri ziren turistentzat baliogarria izan zen liburuxka. /2001-08-06



Herriko eraikuntza garrantzitsuenak zeintzuk diren aipatu zuten liburuxkan.



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko
torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

Ibarreta z/g 20577
Antzuola
Tel. + 34 943 78 60 09
Faxe + 34 943 78 70 34

<http://www.matz-erreka.mcc.es>



Ate eta pertsianak zabaltzeko
automatismoen fabrikazioa

IRAILA



"Sagarrak mimatu eta ondo ureztaztea garrantzitsua da"

KONTXI IZAGIRRE
ORDIZIAKO AZOKAN SARIDUNA
2001-09-07



"Idazkerari esker, pertsonaren nortasuna ezagutu daiteke"

IRUÑE IBARRA
GRAFOLOGOA
2001-09-21

JAIA

Finalista Egunean mendizaleek jaia ospatu zuten

Aurten herriko mendizaleek, hogeita zazpigarren aldiz ospatu zuten Finalista eguna. Urtero bezala, Arrolakoek Trekutzen egin zituzten mendi buelta, bazkaria eta dantzaldia.

Urteekin, aldatu egin da Finalista eguna. Finalista Eguna 1974an hasi zen ospatzen, garai

hartan Koroson izaten zen. Urte osoan igotako mendien arabera banatzen zituzten sariak orduan, baina gaur egun ez da saririk egoten.

Bazkarira jende ugari batu zen aurtengo mendizaleen egunean. Antolaketa ere bikaina izan zen. /2001-09-07



Bazkalostea herriko trikitilari gazteek alaitu zuten.

ESKOLA

144 umek eman dute izena Herri Ikastetxean

Irailaren 10ean hasi zuten 2001-2002 ikasturtea herriko ikastetxean. Guztira 144 neska-mutikok eman zuten izena kurtso honetarako. Maila bakoitzean 15 ume arituko dira batez beste. Azken urtetan ez da aldatu ikasle kopurua. /2001-09-07

INDUSTRIA

Matz-Errekak 40 urte beteko ditu Antzuolan

1961eko irailean sortu zuten bost lagunek Matz Erreka enpresa. Ordutik hona izugarriko garapena izan du enpresak, azken sei urteetan 150 langile izatetik 275 langile izatera pasa da. Mexikon pabilioi berria zabaldu dute duela gutxi. /2001-09-21

URRIA



"Lau urtean nabil Antzuolan helduen eskolak ematen, hauen irakaslea izatea oso lan eskertua da"

MARIAN PADILLA
HHIKO IRAKASLEA
2001-10-05

KONTUOLA

Kontuola astero jasotzen hasi ginen antzuolarrok

Urriaren 19an, hamabostekari izateari laga, eta astekari bihurtu zen KONTUOLA.

Formatua bera eta edukiak dezente aldatu ziren. Emandako jauziaren arrazoiak, produktu aberatsagoa lortzeko asmoa izan zen.

Goienkariaren barruan etorri zen KONTUOLA berria, Berrigara eta Goibekokalerekin bate-

ra, hiru aldizkari hauek osatzen duten Bergarako edizioaren barruan.

Egoitza ere aldatu zuen KONTUOLAK; Antzuolako Eskola utzi eta Bergarako Irizar Jauregian (Barrenkale 33) gaude ordutik. Herriarrok ere haraxe joan beharko duzue zerbait nahi izanez gero. /2001-10-05

GAZTETXOAK

Gaztetxokoari buruzko iritzia eskatu zuten

Gaztetxokoarekin zer egin erabakitzeke zegoen oraindik. Hori dela eta, herriko gaztetxoei, aisialdiko txokoaren gainean duten iritzia eskatu zieten. Pausokako kideek, DBHko ikasleen gurasoek eta Udaleko ordezkariak osatzen duten batzordeak egin zuen inkesta. /2001-00-26



Ekitaldi ugari izaten ziren Gaztetxokoan.

Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBArekin bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Zorionak eta urte berri on!

GOROSTI

Taberna

943 76 62 96
Zurrategi plaza
ANTZUOLA

*Gabonetan...
Ondo pasau!*

SURPE

taberna

TRAGO BAT
hartzeko tokirik
APROPOSENA

Herriko plaza 2, ANTZUOLA
943 76 64 97

PINTXOAK
BOKATAK
KAZUELITAK

Kalebarren 17, ANTZUOLA
943 78 70 68

LARREA

TABERNA

GOIZEKO 7:30etik IREKITA!

Gabonetan ere Eltzikorta, Karmen eta EUSKAL PRESOEKIN BAT!

AZAROA



"Etxian 150 bideo zinta ditudut, hasi biharko naiz daukatena ordenatzen"

JESUS ETXEBERRIA
UDALTZAINA
2001-11-09



"Umeen inpresioa, euskarak Antzuolarako bakarrik balio duela da"

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ
IRAKASLEA
2001-11-16

ABEND.



"Hontzak emoten dost neri lan gehixen, txita jaiio berririk hartu eta eruan egitten dituduzte eta"

FLORENTINO LAMARIANO
AHATE ZAINZAILEA
2001-12-05

IRTEERA

Umeak haize errotak bertatik bertara ikustera joan ziren

Arrolako taldekoek irteera egin zuten Elgean dauden haize errotak bertatik bertara ikustera.

Gatzagatik, haize errotak dauden lekura ibilaldia egin zuten irteeran parte hartu zuten 43 lagunek.

Dorletako Ama Birjina dagoen tokian hasi zuten ibilaldia, eta

bi ordu inguruan haize errotak kokatuta dauden ingurura iritsi ziren.

Irteeran parte hartu zuten 43 lagunetatik, 28 neska-mutikoak izan ziren, eta harritura geratu ziren, Elgeako mendizerran kokatuta dauden haize errotak ikusitakoan. /2001-11-09



Hogeita zortzi umek hartu zuten parte Arrolako irteera honetan.

GIZARTEA

Sikatea dela eta, ur kontsumoa zaintzeko eskaera

Azaro hasieran euri gutxi egin zuela eta, ur kontsumoa zaintzeko eskatu zien Udalak herritarrei. Alkateak esan zigunez, atari guztietan jarritako bandoaren bitartez egingdako eskaerak, erantzun ezin hobe jaso zuten herritarren aldetik. /2001-11-09

JAIA

Seigarren argazki lehiaketako sariak banatuta

Ibai Zabalo eta Nagore Igarza izan ziren seigarren argazki lehiaketako irabazleak. Guztira 30 argazki aurkeztu ziren; epaimahaiak Ibai Zabalo eman zion 14 urte artekoen saria, eta 15 eta 25 urte artekoa aldiz Nagore Igarzari. /2001-11-16

HIRIGINTZA

Errepidean konponketak egiteko Diputazioaren zain

Irailean, Diputazioko errepide saileko arduradunak, errepidearen egoera aztertzen egon eta gero, Diputazioak egingo dion proposamenaren zain jarraitzen du Udalak.

Antzuolatik igarotzen den errepideak sortzen dituen arriskuak direla eta, Udalak autoek abiadura jeitsi dezaten, errepidea

trabesiatzat izenda dezatela eskatzen du.

Diputazioak egingo duen proposamenaren zain jarraitzen du Udalak. Diputazioko errepide arduradunek, errepidearen zati bat baino ezin dela trabesiatzat jo diote. Gainerako errepide zatiak sahesbidea izaten jarraituko luke. /2001-12-05

ELKARTASUNA

140.000 pezeta batu zituen Anelkarrek Brasilerako

Abenduaren leian antolatutako festan 140.000 pta. batu zituen Anelkarrek Brasileko Canudos herrirako. Bidezko Merkataritzako produktuak salduz, berriz, 112.000 pezeta lortu zituzten. Anelkarrekoak oso pozik ziren, jende asko ibili ez arren, helburua bete zuten eta. /2001-12-01



Brasilerako ur-zisterna erosiko dute.

Ondo pasau Gabonak!



Gabilondo-Arregi

harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

OKINDEGIA
GOXOTEGIA
DAZTAKETA
KROISSANTEGIA

ONDO PASAU
JAI HAUTAN!



ALTZARTE

Kalebarren 18. 943 76 62 94

HARATEGIAK



Kalebarren, 1. Antzuola. 943 76 64 84

Gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu!

Eta mila esker gudan izan duzuen konfiantzagatik



Komenio kalea, 2. Bergara. 943 76 10 72

Tomás Gezalaga

Era guztietako pintaketak Fatxaden garbiketak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa
943 76 64 07
Poltsikokoa
616 277 999
ANTZUOLA
BERGARA

Ondo pasau
Gabonetan!



GOIZPER

KOOP. ELK.

GOIZPER

Transmisioak

- Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, neumatiko, elektromagnetiko eta hidraulikoak.
- Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenkako biragailuak. Espeka bereziak.



MATABI
Ihinztagailuak

Nekazaritzan, lorategian,
industrian eta
etxean tratamendua egiteko
ihinztagailu
eta hautsezttagailuak.

Tf. 943 78 60 00 • Faxak 943 76 60 08/943 78 70 95

E-mail: goizper@goizper.com • <http://www.goizper.com>

Antigua auzoa 4 • 20577 Antzuola (Gipuzkoa) • 211 posta kutxatila • 20570 Bergara

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2001eko abenduaren 28a / 81. zenbakia



2001 urteari
errepasoa



URTARRILA OTSAILA



"Herritarren irizpidien arabera jardungo dogu kirola bultzatzen"

OSKAR CARRASCAL
KIROL TEKNIKARIA
2001-01-01



"Elgetan auzo, baserri eta baselizen izen interesgarriak dare"

JUAN SAN MARTIN
EUSKALTZAINA
2000-01-01



"Debagoienian daukagun lurra oso aberatsa da landare mota desberdina aurrera etaratzeko"

JUAN VILLAR
ZUHAITZ HAZLEA
2001-01-01

KIROLA

Gabonetako pelota txapelketia amaierara heldu zan

Abenduaren 30ian jokatu zittuzten herriko pilotari gaztiekin Gabonetako pelota txapelketako azken partiduak.

Bost final izan ziran, umien mailla bakoitzeko partidu bat. Aurrebenjamiñetan Iñaki Olaortua, benjamiñetan Odei Zenitagoia, nesketan Nagore Morales,

alebiñetan Andoni Elortza eta infantilletan Eneko Ormaetxea izan ziran iazko txapelketako irabazliak.

Ozkarbi pelota taldeko David Peñalver eta Xabier Upera arduratu ziran txapelketan parte hartu zeber pelotari danei euren sarixak banatzen. /2001-01-06



Sariak hartu eta gero pozik ziran herriko pelotari gaztiak.

ALKATETZA

Patxi Basaurik 25 urte bete zittuan alkatetzan

Popular eran egin zan alkate hasieran Patxi Basauri. Gero, EAJ, EE eta HBko jendiak osatutako talde independentiaren txandia izan zan. Azkenengo urtiotan EAJn dihardu, herritar askok alkate ezagutu daben bakararra da beroi. /2001-01-01

ETXEBIZITZAK

Etxebizitzak egitten hasi ziran San Roke kaleko goiko aldiari

Eibartik zetorren bidia desbideratzeko lanak amaituta eta lurren jabiakin zeguazen arazuak konpondu zittuenian, San Roke kaliaren amaieran 27 etxe eraikitziari ekin zotzen. Nahiko arazo izan dittue etxiak erosi dittue nek ordutik hona. /2001-01-01

KIROLA

Oihana Kortazar Espainiako Txapelketan laugarren

Iazko denboraldian zazpi lasterketatan parte hartu eta gero, Nojan jokatu zan Espainiako Txapelketan laugarren geratu zan Oihana Kortazar.

Gipuzkoarra izan arren, Bizkaiko lizentzia zeukan Oihanak orduan. Gipuzkuako Txapelketan be hartu zeber parte, baiña ez zeber zorte haundirik izan, dobla-

tu egin zeber eta. Eibarko CDR taldian egin zeber neguko denboraldia Oihanak.

Aitor Kortazarrek be denboraldi bikaina egin zeber iaz; beza baiña nagusixaguekin lehiatu arren, zazpigarren geratu zan Euskadiko Zikrokos Txapelketan. Elorrixoko Gauria Renault taldian jarraitzen dau. /2001-02-01

HARATUSTIAK

Ume eta gazte ugari mozorrotu zan iaz karnabaletan

Barikuan ospatutako karnabaletan, aurtenguan be danerako mozorruak ikusi dittugu. Ertzain, mediko eta neska-mutiko gaizto mozorrotutako umiek arratsaldian euki zeber euren tartia. Aurtenguan be, urtero moduan, nagusixen tartia goizaldera arte luzatu zan. /2001-02-17



Era guztixetako mozorruak aurtenguan.

PANA DE ROKUA
IATETXEAL

Asteburuetan bertako babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA Tf. 943 76 82 73



Elgetar guztioi Eguberri zoriontsuak eta Urte berri on bakean eta alaitasunean

EAJ
PNV




MARTX.

APIRILA



"Uharte desertu batera juango banitza, alpargatak, dirua eta hiztegi elektronikua eruango nittuke"

LEIRE IBAIBARRIAGA
IKASLIA
2001-03-01



"Hondarribitik 100 dolarrekin urtenda emon gontzan bueltia munduari."

SANTIAGO GONZÁLEZ
BIDAIAIA
2001-04-01



"Mayak herrian garatuko diren proiektuak aztertzea du helburu"

REBEKA UBERA
MAYA INGURUGIRO TALDEKOA
2001-04-01

KULTURA

Ostiada oi! musika taldiaren aurreneko kontzertua

Elgetako Ostiada oi! taldiak aurreneko kontzertua eskeiñi zeban Gaztetxiaren seigarren urteurrena zala eta antolatutako ekin-tzetan.

Hiru urte entseguetan pasau eta gero eman zeben taularako sal-tua Josu, Haritz, Iker Asier eta Aniotzek.

The Clash, Bussines, Larrsot

eta, orokorrian, *ska* inguruko tal-diak ziran honek gaztiok gusto-ko zittuztenak, eta euren kan-tuak egitterako orduan kontuan hartzen zittuztenak.

Gaztetxian sortu zan giruakin oso pozik ziran eta aurrerantzian kontzertuak egitten jarraitzeko asmua zeuken. Ia aukerak izaten dittuen. /2001-03-02

GAZTIAK

Ekintza ugari Gaztetxian seigarren urteurrena ospatzeko

Gaztetxien inguruko mahai ingu-rua, umien eguna, kontzertuak... ekintza ugarikin ospatu zeben herriko gaztiak Gaztetxiaren sei-garren urteurrena. Aurten, egu-raldixak ez zotzen askorik lagun-du Gaztetxekuei; haizia zala-eta Espaloian egin bihar izan zeben bazkarixa. /2001-03-24



Giro paregabian ospatu zeben eguna.

KIROLA

Saskibaloit taldekuak berriro be ligan eta kopan txapeldun

Bigarren urtez jarraixan liga eta kopa irabazi zittuzten Estan-paciones Intxorta saskibaloit talde-kuak.

Azken urtietan emaitza ezin-hobiak lortu dittuzte saskibaloit taldeko mutillek. Eibarko txapelketa irabazteko faborituen artian dare aurtengo denboral-

dixan be.

Iaz loritutako garaipenak ospa-tzeko, afarixa egin zeben ekaiñian Estanpaciones Intxortako nagu-sixekin.

Ia aurtenguan be azken urtio-tako denboraldixan moduan ibil-tzen diran; hasieria, behintzat, bikaña egin dabe. /2001-04-22



Iazko denboraldixan be Elgetarrak nagusi Eibarko txapelketan.

KIROLA

Iraitz Lazkanok 3 zillarrezko domiña irabazi zittuan

Gipuzkuako eta Euskadiko WU-SHU txapelketetan emaitza bikañak lortu zittuan. Gipuzkuako Txapelketan bigarren izan zan federatu maillan. Eibarren izandako Euskadiko Txapelketan, berriz, bi, zillarrezko domiña lortu zittuan. /2001-04-01

TURISMUA

Eguzkitza nekazari turismoko etxia zabaldu zeben

Apirillaren 7xan zabaldu zeben Eguzkitza nekazari turismoko etxia. Hala, gura dabenari osatua emotiaz gain, 40 lagunendako sagardotegixa be badauka. Lau gela dauka, bakoitza bere logela eta egongeliakin. Hidromasajia be ba ei dago. /2001-04-07

Aperribay, s.l.

Gabon zorientsuak igaro ditzazuela!

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Urte berri on elgetar denoi!

Neguko denboraldi berria



Elgeta-Piel

Astelehenetik barikura:
17:00-20:00
Zapatuak:
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Domekak: 11:00-13:30

Tel: 943 76 81 12 Domingo Iturbe 8, ELGETA

MAIATZA EKAINA



"Izatezko bikotiek ezkonduko bikotien eskubide berdiñak izan bihar leukie, biharrek berdiñak dira eta"

MIREN ATXOTEGI
LANGILLIA
2001-05-01



"Edozeiñek jaixan parte hartzeko moduko egitaraua osatu dogu"

JOSU DE VEGA
JAIXETAKO BATZORDEKUA
2001-06-01



"Mendi Museua Elgetan ez bada egitten, beste lekuan baten egingo dabe"

ENRIKE GORROTXATEGI
KULTURA TEKNIKARIXA
2001-06-01

JAlA

Eguzkixa lagun, giro paregabia izan zan Aseztio Egunian

Maiatzaren 27xan ospatu zan aurtengo Aseztio Eguna. Egitaraua, urterokua: arrantza txapelketia, herriko dantzariak, Moises Azpiazu dantza taldekuen erakustaldixa, bazkarixa eta erromerixia. Herrittar ugari batu zan Aseztion. /2001-01-27



Aurtengo Aseztio Eguneko irudi bat.

POLITIKA

Elgetan be nabarmen gora egin zeban EAJ/EA koaliziñuak

Autonomia Erkidego guztixan moduan, EAJ eta EA koaliziñuak jaso zittuan boto gehixen Elgetan be. Hiru urte dala izan ziran legebiltzarreko hauteskundiekin alderatuta, EAJ/EAk 154 boto gehixago jaso zittuan. EHk aurreko hauteskundietan baiño100 boto gutxiago jaso zittuan maiatzeko hauteskundietan. /2001-5-14

EMAITZAK

EAJ/EA	488	% 70,4
EH	129	% 18,6
PSE-EE	39	% 5,6
PP	11	% 1,5
IU-EB	22	% 3,1
Abstentziñua	127	% 15,4

KULTURA

Sutargi ikuskizunakin aurkeztu ziran jaixak

Jai batzordiak ekintza berezixa ekarri zeban aurtengo Ferixa Nagusittarako gertautako egitaraua aurkezteko.

Jaixak aurkeztu ostian, Auke-ran dantza taldiaren *Sutargi* ikuskizuna ekarri zeben Espaloia antzokira. Bertan Edu Muruamendiaraz dantzari bergararrak

hartu zeban parte. Ikuskizuneko musikia, gaiñera, aparta izan zan: Kepa Junkerak konposatutakua zan.

Espaloian batu ziran danek hasiera bikaiña emon zotzen jai-xei. Jai batzordekuek txanpana eruan zeben, danek jai-xegaittik topa egitteko-eta. /2001-06-15



Sutargi ikuskizunakin oso gustora geratu ziran Espaloian batu ziran danak.

ETXEBIZITZAK

Etxebizitzen gaiñeko galdekettia egin zeban Udalak

Herrixan bizi edo lan egitten dabenek etxebizitzen gaiñan dauken arazuak zeintzuk diran jakiteko, galdekettia egin zeban Udalak. Biharra ikusitta, Torrealdian 76 etxebizitza egitteko proiektuakin aurrera jarraitzia erabaki zeban. /2001-06-01

KIROLA

Udalak kiroldegixa ustiaketako kontzesiñua atara

Ekaiñaren 18xan, udal kiroldegiko, pelotalekuko eta Bola Toki tabernako ustiaketaren kontzesiñua kaleratu zeban Udalak. Lehenengo enkanterra ez zan iñor agertu eta bigarrenguan ustiaketa hartuko zebela esan zebenek be kale egin zotzen. /2001-06-18

TAPEM S.A

Trokelak eta estanzazioa. TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31 / Faxe: 943 76 82 43

Urte berri on denoi!

Aintzane denda

zugandik gertu, behar duzun beste

Domingo Iturbe 4, ELGETA
Tel: 943 768297



Urte berri on elgetar denoi!

UZTAILA



"Gobernuan parte dan talde batek ezin dotse aurrekontuei ezetza emon"

IÑAKI UGARTEBURU
ZINEGOTZIXA
2000-00-00



"Gurekin kontrastatu bariko aurrekontuei zelan esango dotsagu baietza?"

SEBASTIAN ARANTZABAL
ZINEGOTZIXA
2000-00-00

JAIXAK

Aspaldiko egitarau onena Elgetako Ferixa Nagusikotan

Adin guztixeko jendiandako moduko egitaraua gertau zeban jai batzordiak Ferixa Nagusixetarako.

Umiek gura beste ekintza izan zittuen, haur parkia, *playback*-a, antzerkixa, dantzak... Gaztiak, zer esanik ez, era guztixetako kontzertuak, zezena, asto karre-

ria. Eta nagusixek, aspaldiko partez, mariachixak.

Gaiñera, zapatuko tanborra-dan adin guztixetakuak batu ziran danborrari jota Elgetako kaliak alaitzeko.

Egoten dan aurrekontua kontutan hartuta, hamar bat merezi dabe antolatzailliek. /2001-07-01



Herritar danak gustora jai batzordiak antolatutako egitarauakin.

UDALA

EH Gobernu batzordetik bota zeban EAJ/EAk

Hille bukaeran irailera arte erabakixa atzeratzia pentsau zeben arren, EH Gobernu batzordetik kanporatu zeban EAJ/EAk aurrekontuak onartzeko osoko bilkuran, EHkuek ezetza emon zebela-ko. EHkuek eskatuta atzeratu zan erabakixa. /2001-07-30

KULTURA

Jon Anduezak Aita Guria film laburra filmatu zeban

Hirugarren film laburra Elgetan filmatu zeban Jon Anduezak. Martxelo Rubio, Oihana Maritorea, Gorka Igartua eta Mikel Antero aktoreek hartu zeben parte filmian. Iban Arantzabal elgetarra be aktore lanetan ibilli zan film laburrian. /2001-07-14

ABUZT.



"Gero eta gehixago kostatzen jaku Salbador jaixak antolatzia, baiña aurrerantzian be horretan segittuko dogu"

FERNANDO OIANGUREN
SALBADOR JAIXETAKO ANTOLATZAILLIA
2001-08-06

JAIXAK

Elgetan geratzen diranendako jaixak: Salbadorrak

Udan jende gutxi geratzen dala herrixan? Taberna eta dendak itxi egitten ditzuztela? Salbadorrak pasau arte, behintzat, ez.

Urriak aurrera doiazan neurrixan, gero eta indar haundixagua hartzen dabiz jaixok. Kontutan hartu bihar dogu, lana dala-

eta, herritarrak gero eta beranduago juaten gazela oporretara.

Aurtenguan be, giro politta euki giñuan Salbadorretan; ia hurrengo urtiotan be jendia antolatzen dittuen ekintzetan parte hartzera animatzen dan. Datoren urteko bizikleta karrerako desafixua eginda dago. /2001-08-06



Salbador kaleko atzeko aldi egin zeben aurtengo Salbador jaixetako afarixa.

San Roke, 26
20690 Elgeta
GIPUZKOA
SPAIN
Tel. 943 789106
Fax. 943 789106

Urte berri on

Urte berri on

**SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01**

IRAILA



"Aurtengo denboraldixan 2.B mailan jokatzeko aukeria izango dot; maila haundixa egongo da seguruenik"

KOLDO EROSTARBE
EIBAR B TALDEKO JOKALARIXA
2001-09-01

JAIXAK

Aurten be, Sagardo Egunakin esan gontzan agur udiari

Urtero moduan, danondako beste sagardo ekarri zebeu Gazte-txekuek plazara.

Patata-tortilla lehiaketan 21 taldek hartu zebeu parte eta Iñaki Urgoitia, Iñaki Ugarteburu eta Mari Mar izan ziran epailliak. Otxoatarrek irabazi zebeu. /2001-09-15



Otxoatarrek izan ziran irabazliak.

KIROLA

Xabier Arangurenak emaitza onak lortu zittuan denboraldixan

Bergarako San Martin sarixan zortzigarren postua lortu eta gero, agur esan zotzan Elgetako ziklistak denboraldixari. Gaiñera, hori postuori izan zan lortutako onena. Elgoibarren 16.a izan zan eta Gatzagan 30.a; Goierriko itzulian be hartu zebeu parte Xabierrek. /2001-09-01

KIROLA

Donostiakuak dira kiroldegiko ugazaba barrixak

Kiroldegixan ustiaketia hartu bihar zebeu huts egin eta gero, irailian honetaz arduratuko ziran lau gazte donostiarrei emon zotzen Udalak kiroldegixaren arduria. Bizkor zabaltzeko asmua zeuken arren, egin zittuzten berrikuntzak zirala-eta urriara arte ez zebeu zabaldu. /2001-09-01

URRIA



"Elgetako Udaleko egoera ekonomikua oso berezixa da"

JESUS MARIA AGIRREZABALA
UDALETXEKO KONTABLIA
2000-10-01



"Euskeria banatzeko ez dala diñue; erabiltzaillik gara banatzaillik"

JABIER ARANZETA
IRAKASLIA
2001-10-01

POLITIKIA

Batasunak batzordiekin jarraitzia erabaki zebeu

Aurrekontuei ezezko botua emon eta gero EAJ/EAk Goberno batzordetik kanporatu ostian, ez zeuan argi Batasunak batzordiekin jarraituko zebeu edo ez. Bere inguruko jendiaquin batzarra egin ostian, Kultura, Euskara eta Gaztien batzordiekin eta Baserritarren batzordiaquin jarraitzia era-

baki zebeu Batasunak Batzordian parte hartzen daben jendiaquin be berba egin zebeu Batasuna alderdiko zinegotzixek.

Gobernu batzordian parte hartu ezin daben arren, lana egiten jarraituko dabela esan zozkuen.

/2001-10-28



Batasunak batzordiekin jarraitzia erabaki zebeu.

KULTURA

Maya taldekuen perretxiko lehiaketia


Ainara Aranzeta, Nora Ugarteburu, Eneritz Larrea eta Leire Azkarragaurizar izan ziran Maya ekologia taldiak antolatu zebeu perretxiko lehiaketako irabazliak.

Eneko Maguregiri Eibar-ko lehiaketan emon zotzen sarixa. /2001-10-28

HIRIGINTZA

Autuek herrixa polikixago pasatzeko, zer egin?

Herrriko sarreretan konponketa lanak egin eta gero, herritik pasatzen diran autuen abiaduria murrizteko zer neurri hartu eztabaidatzen zebeu Udala. Zebrabide altxatuak jartzeko proposamena aurrera eruango dabe seguruenik. /2001-10-01



Astean zehar eguneko menua

Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua

Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

BOLATOKI TABERNA JATETXEA

Urte berri on

Goitik behera berrituta Zatoz!


Artekale, 2 Elgeta
943 76 82 84



MAKIÑA ERREMINTA

Teknologia, Kalitatea eta Zerbitzuak

Urte berri zorientsuak



Elorrio bidea

Elgeta (Gipuzkoa)

Tel: 943 76 82 50 / 943 76 82 51 Faxa: 943 76 82 23

laibe@euskalnet.net

AZAROA



"Gure antzerki lanen meritua berba barik elkarrizketak sortzia da"

JON KEPA ZUMALDE
MARKELIÑE-KO PARTAIDIA
2001-11-01



"Poltsikoko telefonotik berbetan sei ordu eta erdi egin neban behin"

RAKEL URIEN
SUPERMERKATUKO LANGILLIA
2001-11-01

KULTURIA

'La Garbo SA' antzezlanakin barre egin eta gustora

Azaruaren 23an, mailla haundiko antzezlanak ikusi ahal izan giñuan, Espaloian batu giñan danok. Kultura batzordiak antolatuta, Markeliñe-kuek *La Garbo SA* antzezlanak aurkeztu zeben.

Markeliñe-ren antzezlan gehixenetan moduan, *La Garbo SA* n ez zeguan berbarik. Hala eta

be, mugimenduekin, argixekin eta soñuakin esan gura zeben dana adierazi zozkuen.

Antzezlanian egon giñan danok pozik urten giñuan ikusitakuakin. Elgetan, kultura ekin-tzak jasotzeko nahixakin, jende ugari dagola ikusi zan oinguan be. /2001-11-22



Jende ugari batu zan *La Garbo SA* antzezlanak ikustera.

KIROLA

Xabier Ubera berriz DV Txapelketako finalian

Arrasaten jokaturako partidua irabazi eta gero, DV Txapelketako finalerako sailkatu ziran Xabier Ubera elgetarra eta Haritz Laskurain soralezetarra. Kluben Arteko Gipuzkuako Txapelketan 22-18 galdu zeben Ozkarbi taldeko pelotarixek. /2001-11-23

IKASTARUAK

Defentsa pertsonaleko ikastarua

Gaztetxiak defentsa pertsonaleko ikastarua antolatuta zeben. Patxi Bouzasek ekin zotzan eskolak emotiari, eraso baten aurrian hartu biharreko jarrera eta emon biharreko erantzun egokixena azaltzeko. Ikastarua martxan dago ondiokan. /2001-11-30

ABEND.



"Oso pozik nago, nahiz eta bost milloittik bi Haziendari emon bihar. Proiektua baloratziak animuak emoten dittu."

IBAN ARANTZABAL
KUTXAKO EKINTZAILE BARRIXEN SARIEN IRABAZLIA
2000-12-01

KULTURA

Espaloia Kafe Antzokixaren proiektua eskatuta

Bi urte dala Udala maala inguruan dagan aretua barrutik egokitzeko lanekin hasi zanian ekin hasi ziran Goibeko Kultura Elkartekuek Espaloia Kafe Antzokixan pentsatzen.

Kultura batzordiak proiektua Toledo Arkitektu Taldari eskatzia onartu zeben. Otsaille-erako proiektua egongo da. Bittar-

tian, Kultura batzordian parte hartzen daben talde guztixek proiektuaren gainian adostasun batera heltzeko batzarrak egitten dihardue.

Kafe Antzokixaren proiektua egittiak milloi eta erdiko aurrekontua izango dau. Seguruenik Goibekok hartuko dau bere arduria. /2001-12-11

GIZARTIA

Delegaritzak umien jantokixa egingo dabela esan zeben

Datorren ikasturterako eskolako umiendako jantokixa egingo dala esan zotzen Delegaritzako arduradunek herriko gurasuei.

Hille hasieran, Delegaritzako teknikuak eskolan izan ziran, jantokixa kokatzeko leku aproposena zein izan leiken aukeratu nahixan. /2001-012-05



Eskolako umiek jantokixa izango dabe.




ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.

HODI MEKANIZAZIOA ETA ESTANPAZIO METALIKOA 400 Tn.ra ARTE

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Urte berri on denoi!

Jesus Mari Montiel

ITURGINTZAETA BEROGAILUAK

Artakale 3. Mo: 656783299 Eibar. Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

ANA liburudenda

Zatoz! Denetarik topatuko dozu: eskolako materialeak, jostailuak, ...

Gabon onak pasau!



Elgeta (Gipuzkoa) Tel: 943 76 80 78



EGYZKITZA



Lau gela eskaintzen dizkizuegu urte osoan eta gure sagardotegian txotxean sagardoa daztatzeko aukera

ESKAINITZA

Asteburuan bi lagunendako gau bat
+
afaria + gosaria + bazkaria

15.000* pta.

* Behe-denboraldian

